

noaua

**Willy Toledo: "Ahoa
ixteko hobi komun batean
sartu beharko naute"**


**Ikastaro berriak
ate joka**

**Milaka lagun
adostasunaren
aldeko manifestazioan**



Larunbatean, Inauteri Festa

Jolaserako garaia iritsi da



TAILANDIA



943 373 613

BIDAIAK
TALDEAN

IRTEERA MAIATZEAN

LASARTE ORIAK, NOAOAK GIDATUA

info@noaoa.eus

noaoa.eus



**FUNERARIA
GONZALEZ**
EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

**OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO,
HERIOTZA GERTATZEN BADA,
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,**
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).

MOMENTU LATZETAN DENETAZ ARDURATZEN GARA

943 36 21 63 (24H)

•BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... •ERRAUSKETAK



Iruin Sagardotegia

Etorri eta dastatu sagardo berriak

30 Urte baino gehiago Usurbildarrei
sagardo hobereak eskeintzen.

Iruin, beti zugandik gertu.

943.361.229

Petritza bidea 12, Zubieta



Usurbilen,
zure auto-tailerra



Atallu

AUTOAK

Motorra
Balaztak
Mekanika
Esekidurak
DOHAINIK IAT-aurrekoa
Pneumatikoak
Ihes Kanalizazioak
Injekzio Elektronikoa
Berehalako Zerbitzua



Atallu Industrialdea, Oria kalea 4 / Usurbil 20170 / 943 37 74 78 / atalluautoaki@gmail.com

Albisteak iruditan

Erakusketa berri bat Artzabalen

Dolo Marina eta Larraitx Ugartemendiaren margolanak ikusteko aukera izango da Artzabalen martxoa hasieratik apirilaren erdialdera arte. Bi belaunaldi ezberdinetako Arte Ederretako ikasketak eginiko bi emakumeren sortze lan bilduma esekiko dute bertan. "Ibilbide ezberdinak egin ditugun arren, bidean egin dugu topo. Euskal paisaiaren kolorea zuzenean lantzen dugu biok. Pintzelkaden bidez eta momentuko argiarekin, mihise zein ohol gaineko olioak lantzen dugu. Horrela, Irun eta Hendaia arteko gure bazterrak irudikatzen ditugu".



Dolo Marina eta Larraitx Ugartemendiaren margolanak martxoaren 1ean ipiniko dituzte ikusgai.

Laburrean

1968an jaiotakoen bazkaria, apirilaren 6an

Apirilaren 6rako antolatu duten hitzordurako whatsapp taldea osatu dute. Talde horretan norbait egon ez eta bazkaria animatzen bada deitu 696 411 683 (Bego) edo 666 872 818 (Ana) telefono zenbakietara.

1969an jaiotakoen kinto bazkaria

50. urteurren bazkaria irailean edo urrian ospatuko dute. Eguna eta tokia zehazteke daude baina dagoeneko talde bat hasi da ospakizuna prestatzen. Aurrerago eman- go dituzte xehetasun gehiago.

1975ean jaiotakoen bazkaria, martxoaren 23an

Martxoaren 23an bazkaria bat egiteko asmoa dute Saizar Sagardotegian. Animatekin denak deitu edo mezu bat bidali dezala martxoaren 10a baino lehen: 653 728 059 (Haritz) / 655 73 89 04 (Olatz).

noqua

Kultur Elkarteak

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 // elkartea@noaua.eus // www.noaua.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkariko koordinatzailea:

Imanol Ubidea.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Beatriz Alda,

publizitatea@noaua.eus

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaua.eus:

Imanol Ubidea, Aritz Lasarte.

Banaketa: Iñaki Irazusta, Jon

Galbete.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbietta, Maddi Galbete,
Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,
Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon
Etxabe, Alazne Begiristain, Denis
Elortza, Pello Aranburu, Xabier
Aranburu, Inma Balda, Luis Ara-
nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen
Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta
Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Euskal Herrerria!



Luis Aranalde

Cafarnaúm

Lehenengo astean ekarri zuten Donostiara “Cafarnaúm” pelikula. Oscar sarirako izendatua dago atzerriko film onenen artean. Lehen emakume arabiarra izango litzateke saria eskuratuko balu. Bere zuzendaria Nadine Labaki libanoarra da, aktorea eta produktorea. Donostiara lehen aldiz etorri zenean 2007an Zinemaldiko publikoaren lehen saria irabazi zuen “Caramel” filmagatik. Cafarnaúm deitu du pelikula antzinatean herri bibliko honek Yavé Jainkoaren madarikazioa jaso zuelako eta horren ondorioz kaosaren eta nahasmenaren sinbolo bihurtu zelako. Cannesko azken festibalean epaimahaiaren lehen saria irabazi zuen pelikula honek.

Bi alderdi azpimarratuko nituzke:

1-Drama: protagonista 12 urteko mutiko bat da, Zain libanoarra eta gurasoak auzitara eramaten ditu. “Zergatik salatu dituk aita-amak?”, galdetzen dio epaileak. Gaztetxoaren erantzuna: “Ni sortzeagatik”. Hitz batez, familian eta gizarte osoan bizi duen miseria gorriaren kontra

matxinatzen da mutikoa.

Pelikula filmatu aurretik lau urtez prestatu zuen Labaki zuzendariak: ehunka kaleko haur eta gaztetxorekin hitz egin zuen, Beiruteko periferiako auzo pobreetako bazter guztiak miatu, aktore eta aktorea ez profesionalak aukeratu, behar gorrian bizi diren haur eta beren gurasoen giroa ahalik eta ondoen islatuko zituen irudiak hartu... Beiruteko auzo txiro horietan txabolak besterik ez daude eta milaka errefuxiatu siriar eta etorkin bizi dira, eta ez Libanok eta ez Europak ez du nonbait ia ezer egiten egoera tamalgarri horri erantzun bat emateko.

Zain protagonistaren familiako giro patetikoa oso ondo deskribatua dago: bere gurasoak, nahiz eta egoera desesperatu batean bizi diren txabolala zikin batean denak pilatuta, mirariak eginez zerbait jaten emango badie seme-alabei, Alak agindutako haur guztiak ekartzen dituzte noski, jaio-tzatik behar gorrira kondenatuz denak. Seme zaharrena kartzelan dago, 11 urteko alabatoa dirudun zoro batekin ezkontzeko saltzen dute, beste

semeak ahal duen guztia lapurtzen du txikienei jaten emateko... Zainek alde egiten du etxetik eta etiopiar andre gazte batek bere haurtxoa zaintzen jartzen du erresidentzia agiria lortzen duen bitartean.

2-Esperantza: egoera beltz, ilun eta negargarri honetan argi izpi bat, itxaropen apur bat. Zain eta haurtxoaren arteko samurtasunak ez du pakekorik. Ikusi egin behar da umetxoa marmita gisako ontzi zabal batean sartu, patinete antzeko ibilgailu baten gainean jarri eta nola eramaten duen hara eta hona hirian barrena. Ez dakit inoiz ikusi ote nuen eszena hain hunkigarriarik. Aldi berean umore ederra dario une batzuetan odisea hori konstatzerakoan. Haurtxoaren eta gaztetxoaren artean harreman oso estua sortzen da. Zalan-tzarik gabe egoera latzetan ere bada itxaropenik, Martin Iturbe apaiz lagun poetak esaten zuen bezala: “gau ilunak ere badu bere poza egunsentiaren esperantza galtzen ez duen bitartean”. Carlos Boyero zinema kritiko ezagunak honela dio: “Zainen begiradak arima harrazkatzen dizu. Cannesko

festibal osoan ez dut ikusi horren interpretazio zirrargarri, magnetiko eta egiazkorik”. Mutikoaren azken irudia ere oso polita da: nortasun agirirako ateratzen dioten argazkian agertzen duen irribarrea. Azkenean nortasun agiri baten jabe izango da, ordura arte ez zen inor, zorroak bezala, animalia gisa tratatzen zituzten bere esanetan. Hura poza gaztetxoarena!

Kritika zorrotzak ere egin dizkiote filmari: “pornomiseria” besterik ez dela, Labaki zuzendaria sentimenduak manipulatzeko besterik ez dakiela... Horrela ari direnei esango nieke: “zoazte Beiruteko extraradio horietara eta ikus. Pelikulan agertzen dena adibidetxo bat besterik ez da. Erraza da kritikatzeko zure bulegoan lasai eserita idazten duzun bitartean”.

Donostiako Festibalean esan zuen: “Egia haurren ahotik irteten da beti, hauek ez baitira kode jakin batzuen arabera mintzatzen, bihotzean sumatzen dutenak eraginda baizik. Horixe izan da nik aditza eman nahi izan dudana filmaren bidez”.

Aroa Etxeburua Ugartemendia | Garazi Lizaso Manterola | Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | **Luis Aranalde** | Luken Arkarazo

Komikia



TOKIKOMeko hainbat hedabidek sustaturiko tira komikoa.

Arnaldo Otegi solasean Sutegin

Gaurkotasun gaiei errepaso sakona eman zien EHBilduko koordinatzaile orokor Arnaldo Otegik otsailaren 21ean Sutegin eskaini zuen hitzaldian.

Egungo errealitatea aztertzerakoan mundu mailako krisi sakona aipatu zuen sarritan. Eta krisi egoerei autoritarismoz eta kontraerreformekin erantzuteko dagoen joera nabarmentzen zuen. Espainiar estatua jarri zuen adibidetzat. “Egiturazko krisi oso larrian da”, zioen Otegik.

“Aliantza oso zabalak behar dira”

Testuinguru honetan, ate joka diren Espainiako hauteskundeetan, alderdi bezala ez, herri bezala parte hartzeko beharra defendatu zuen, beste herriein (Galiza, Herrialde



Mertxe Aizpurua kazetariak eta alkate ohiak gidatu zuen Sutegiko solasaldia.

APIRILEKO HITZORDUAZ

“Espainiako hauteskundeetan, alderdi bezala ez, herri bezala parte hartzeko beharra defendatu zuen”

Katalanak, kanariar herria) batuta eta EHBilduren kasuan, lehentasun batekin, “presoak

ateratzea”. Horretarako ordea, “aliantza oso zabalak behar dira”, Usubilgo EHBilduk antolatu eta Mertxe Aizpurua kazetariak gidatu zuen ekitaldian Otegik zioenez. Herrien arteko aliantza, gutxieneko programa baten bueltan, horixe apirilaren 28ko hauteskundeetarako planteatzen zuen proposamena.

Errigoraren kanpaina berria

Errigoraren udaberri parte-ko “Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura” kanpainak bost urte bete ditu. Martxoaren 7an irekiko da eskariak egiteko aukera NOAUA! K.E.-ren egoitzan edo errigora.eus bidez. Aurten produktu eskaintza zabaldu du Errigorak. Arroza eta haur nahiz helduentzako kamisetak erosi ahaliko dira. Eta hauekin batera, oliba olioia eta kontserbak. Informazio gehiago hurrengo astekarian.



Martxoaren 7an zabalduko da eskaerak egiteko epea.

Ika-mika

Aginagako saneamendua linbotik kanpo!

Jone Urdanpilleta Zerbitzuetako zinegotziak albiste ona eman zigun lehenengoan: kostata, baina azkenean Añarbeko Mankomunitateak (Añarbeko Urak) Aginagako saneamenduari ekiteko moduko aurrekontuak onartu ditu. “Lortu egin dugu”, zioen zinegotziak poza ezkutatu ezinik. Eta pozik egoteko arrazoirik ez du falta. Gogora dezagun...

2007an, Gipuzkoan hainbat lan hidrauliko egiteko akordio

bat sinatu zuten erakundeek. Akordio haren arabera, Aginagako saneamendua 2011 baino lehen egin behar zuten. Aurrekontuaren % 75 Jaurilaritzak ipini behar zuen eta Añarbek gainerakoa. Baina Jaurilaritzak ez zuen bere partea ipini, ez 2011. urte bitartean ez harrez geroztik, eta Aginagak jarraitzen du ur zikinak zuzen-zuzenean Oriara isurtzen, Natura 2000 Sareko Babes Bereziko Eremu batean, gainera. Ez hori

bakarrrik: 2016an, Plan Hidrológico berrian, diru gutxi zegoen aitzakian, Aginaga 2027ra arteko saneamendu-programaziotik kanpo geratu zen.

Beraz, Añarbek orain aurrekontua onartu izana oso pozgarria da, proiektua zegoen linbotik atera duelako.

Zinegotziak gaineratu du lehen bi faseak aurten bertan lizitatu, datorren urtean hasi eta 2022an bukatuko direla (hirugarren bat geroko gera-

tuko da). Ea egia den, baina epeekin eszeptikoagoak garela aitortu behar dugu. Kontuan izan diru gehiena (orain % 60, ez 2007ko % 75) berriro ere Jaurilaritzak ipini behar duela, eta bere jokaera orain arte nolakoa izan den ikusita...

Eguzki

P.S. Gipuzkoan hainbat saneamendulan egiteko akordio berriak eta Jaurilaritzak orain arte izandako jokaeraz, ikus eguzki.org ataria.

www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA

ARRANDEGIA PELLO
ORDUTEGI BERRIA:
ASTELEHENETIK-LARUNBATERA
9:00-13:30
ASTEARTE-ASTEAZKEN-OSTEGUNA
17:00-19:30
PUNTAPAX 7, 943 54 37 94

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Patxi
Patriketa jatetxea
· bazkariak EGUNERO
· afariak. asteazkenetik larunbatera
© 943 362725 · © 688 690 361

Aintzane Iribar Aguiar: “Venezuelarra naiz eta egoera hau ikusteak barruak mugiarazten dizkit”

Venezuelan urteak bizitzen daramatzan euskal enpresari Agustín Otxotorenaren hitzaldia izango dugu martxoaren 5ean 19:00etan Sutegin. Venezuelan gertatu baina kontatzen ari ez diren errealitatea plazaratzera dator. Hitzordua Tadamun Usurbilgo elkargune internazionalistak antolatu du, baina ekitaldiaren hariak Aintzane Iribar Aguiar hasi zen mugitzen. Urteak eman ditu Usurbilen bizitzen, baina Caracasen jaioa da. Venezuelako egoera nola bizitzen ari den galdetu diogu.



Aintzane Iribar Aguiar Caracasen jaioa da. Ama venezuelarra du, aita bertakoa.

NOAUA! Venezuela duzu sorterrria.

Aintzane Iribar Aguiar: Caracasen jaiotakoa. Ama Venezuelakoa, aita euskalduna. 10-11 urte arte egon nintzen bizitzen han. Estatu kolpea izan zela eta hona etorri nintzen. Hango egoera zailagoa zen eta gurasoek ni hona etortzea erabaki zuten.

Hemen bizi arren, harreman estua mantendu duzu ordutik sorterriarekin.

Bai, ama eta bere familia han bizi baita. Orain egoera ez da samurra. Ama eta familia beldur handiz daude eta nahiago dute ni hara ez joan eta egoera lasaitu arte hemen geratzea.

Venezuelatik etorri aurreko etapa nola oroitzen duzu?

Caracaseko auzo batekoa naiz, familia apalekoa. Chavez boterera heldu zenean han bizi nintzen oraindik. Esperantza eta aldaketa zen Chavezek irudikatzen zuena. Karisma handia zuen. Bertan ezagutu nuen, berarekin egoteko aukera izan nuen. Iraultzaren beste garai bat bizi izan genuen. Orain hemen bizita, urrunetik

AINTZANE IRIBAR AGUIAR

“2015ean hara joan nintzenean, janariarekin gatazka handia zegoen, gauzak eskuratzeko zailtasunak zeuden. Inork ez du erantzukizunik bere gain hartu nahi. Hala ez goaz inora”

ikustea erraza da, baina bertan egotea desberdina da.

Venezuela tentsio egoera batean dela helarazten ari zaizkigu hedabideak. Ezaguna zaizu zuri, lehendik ere?

Bai eta nik uste venezolarrei ere ezaguna zaiela. Horregatik

gehiago larritzen gara kanpoan gaudenak, bertan daudenak baino. Venezuelarrak oso umoretsuak dira. Txantxetan dabilta sarritan Guaido eta Madurori buruz, eta horrek asko babesten die, egoera benetan larria bizitzen ari baitira. Lehen ere, eskuinak estatu kolpea emana du. Chavezek 3 estatu kolpe saiakera izan zituen gutxienez. Behin bi egunez Chavez kendu zuen boteretik eta irla batera eramane zuten. Herria kalera irten zen presidentearen itzulera eskatzera eta une hura bizi izan nuen senideekin kalean. Presidentetza laburrena izan zen, 48 ordukoa, ejertzitoak Chavez ekarri baitzuen.

Giro horrek antza handia du orain gertatzen ari denarekin, ezta?

Amari galdetzen diot ia nola bizitzen ari diren eta amak esaten dit oraingoa gogorragoa iruditzen zaiola.

Gerra hitza ere sarritan hartzen ari dira ahotan.

Bai baina hori ez da kontu berria. Amak aspalditik esaten dit gerra zibila dagoela. 2015ean hara joan nintzenean, janariarekin gatazka handia zegoela ikusten nuen, gauzak eskuratzeko zailtasunak zeudela. Inork ez du erantzukizunik bere gain hartu nahi. Hala ez goaz inora.

“Gazte asko joan dira”

NOAUA! Venezuela barruko gatazka aspalditik datorrela aipatzen duzu, baina kanpotik ere ez dago gatazka hau konpontzearen aldeko giroa ezta?

Aintzane Iribar Aguiar: Badago gerra bat Venezuelari egiten zaiena, eta ez bakarrik AEB-ri, Europari ere interesatzen

zaiona. Venezuela baliabide asko dituen herri bat da: petrolioia da garrantzitsua, nire ustez hau dena petrolioagatik dator. Baina gasa du, diamanteak, urrea, mineralak, lur ona... Baina eguneroko hango errealitatea bestelakoa da. Txikitako bi lagun gertatzen zaizkit bakarrik Venezue-

lan, beste guztiak kanpoan daude. Horrek zerbait esan nahi du, gazte asko joan dira. Bat ez da joaten bere herritik, benetako beharra ez badu. Bi lehengusu Txilen bizi dira eta argi diote hilabete bukaerara heldu daitezkeela bertan, Venezuelan ez. Hori esatea oso gogorra da.

Venezuelaren beste aldea argitara



Agustin Otxotorena Venezuelari buruzko hitzaldia eskainiko du martxoaren 5ean SuteGIN. Argazkia: @aotxotorena

NOAUA! Ulertezina dirudi, baliabideetan hain aberatsa den herri batek nola dituen bizi baldintza hauek.

Aintzane Iribar Aguiar: Blokeo bat dago. Gertatzen ari denetik beldur gehien ematen didana AEB Venezuelen sartzea da. Hala gertatzen bada, hor gerra piztuko dela iruditzen zait. Venezuela barruko egoera oso zaila da. Venezolarren artean arrakala bat dago betidanik, gaur egunean oso nabaria da. Sistema usteldua dago. Venezuelak dituen lurrekin elikagai falta izatea ez da onargarria.

Itsasoz alde honetan ez al dago hipokresia handia, Venezuelen gertatzen ari dena epaitzerakoan?

Bai. Hori bizi behar da. Chavista zara edo opositoria. Inork ez du esaten batetik eta bestetik zer atera daitekeen. Bat edo beste zara.

Elkar ulertu ezin diren bi bloke.

Bada harritzen nauen gauza bat. Urtarrilaren 23ko martxoak irudiak ikusi nituen eta jende asko du aurka Madurok. Maduro ez da Chavez eta ez

AINTZANE IRIBAR AGUIAR

“Venezuelatik kanpotik iritzia ematen dugu, baina haiek erabaki eta konpondu behar dute. Haien kontua da. Inork esaten ez duen arren, asko dago jokoan”

da izango. Madurok ez du bosterea edozein modutan utziko. Herriaren zati handi bat kontra du baina indar armatuak alde. Jendeak dio Chavezen ondarea bizirik dagoela. Jendeak benetan Chavez maite zuen eta Chavez militarra zen. Chavezek hautatu zuen Maduro.

Fideltasuna kontuan hartzekoa da beraz.

Bai. Beste aldean, oposizioa. Bere burua presidente izendatu duenak zer eskaintzen du? Ezer ez. Ez dago planik. Nire beldurra da Venezuela salduko ote duten. Chavezek sortu zituen Karibeko herrialdeen bateragunea, Latinoamerikako herriak batzeko eta AEBri begira ez egoteko. Chavezek alfabetatizatu zuen ia herri oso

bat. Inork ez du esaten hori. Polita da ondo dagoena aitorzea, goazen gaizki egindakoa aztertzea. Baina horretarako ere gai ez gara.

Venezuela bidegurutze batean dagoela esango zenuke, nondik jo erabakitzeko unea heldu zaiera? Epe motzerako zer arriskuspun duzu zure sorterrirako?

Edozein modutan, gerta daikena oso gogorra izango da. Baina hau ere ez da kontu berria. Kanpotik iritzia ematen dugu, baina haiek erabaki eta konpondu behar dute. Haien kontua da. Inork esaten ez duen arren, asko dago jokoan.

Hemen zaudeten venezolarrok, gaiari buruz hitz egiteko beharra izango duzue?

Taldeak egiten ditugu whatsapppean. Ikusten da bat Chavezen banderarekin, beste Caprilesenarekin. Elkar laguntzen gara gure artean. Gero posizionatu behar bagara... Hemen manifestaldi batzuk egin dira, eta ikusi dut lagun batzuk nora joan garen eta beste batzuk nora joan diren. Hau da dagoena.

“Sutegin itxarongo zaituztegu denoi”

NOAUA! Zure sorterrirarekiko duzun kezkak hitzaldia antolatzerantz bultzatu zaitu.

Aintzane Iribar Aguiar: Venezuelarra naiz eta egoera hau ikusteak barruak mugiarazten dizkit, familia dut han eta nire sorterria da. Beti zaude gertatzen ari dena jarraitzen, zer moduz diren... Venezuelen bizi da Agustin Otxotorena. Enpresari euskalduna da, pertsona interesgarria. Hitzaldiak eskaintzen ari da Euskal Herrian eta kanpoan. Venezuelen gertatu eta telebistan ikusten ez dugun beste aldea kontatzen du. Argi hitz egiten du. Hitzaldia eskaintzea proposatu nion eta berak adierazi dit berarentzat betebeharrak bat dela. Hori esan zidanean hunkitu ninduen. Jendeak beste aldea ezagutu behar duela dio. Hitzaldia antolatu dugu, galderak ere egin ahalko dira.

Gai batzuetan sakonduko du edo orohar Venezuelaren erradiografia egingo du?

Egungo egoera aztertzen du, nola heldu diren honaino, gertatzen ari denaren atzean zer dagoen, kontatzen ez diren ze interes dauden, batez ere hainbat kontu gezurtatzeko. Interesgarria izango da bere hitzaldia. Arrakasta handikoak izaten ari dira. Bolondres moduan egiten du hau guztia. Berak esan bezala, betebeharrak bat da. Benetan eskertzen dut eta interesgarria da bertan bizi den pertsona batek bere iritzia ematea. Egunerokoan han bizi den baten ahotsa entzutea interesgarria da. Animatu, Sutegin itxarongo zaituztegu guztioi. Hausnartu eta Venezuelako albisteak ikustean zer pentsatu ematen badigu ondo!

Ikastaro berriak ate joka

Batukada feminista

Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailak antolatuta, martxoaren 1ean, 15ean, 29an, apirilaren 12an eta maiatzaren 10ean eta 24an, 17:00-19:00 artean, Udarregi Ikastolako erdiko aretoan.

■ Izen ematea bideotatik egin: Parekidetasun Sailaren egoitza, parekidetasuna@usurbil.eus, 943 377 110.



Martxoaren 1ean hasiko da batukada feministaren ikastaroa.

Gazteen batukada

Gaztelekuak antolatuta DBH1koentzat, martxoaren 30ean, 17:00-19:00 artean Potxoenean.

■ Izen ematea aurrez Gaztelekuan (943 371 050).

Sorospen eta sorosle ikastaroa

DYAk antolatuta, martxoaren 11tik apirilaren 2ra, astelehenetik ostiralera, 19:00-21:00 artean Munalurrako egoitzan.

■ Izen ematea: 943 46 46 22 dyagipuzkoa.com

Sagarrondotik Sagardora

Iralera arte luzatuko den ikas-

ORIGAMI IKASTAROA SUTEGIKO LIBURUTEGIAN

“6 urtetik gorako haurrek origami tailerra egiteko aukera izango dute Sutegin. Martxoaren 22an, 17:30-19:00 artean, Sutegi udal liburutegian”

taro praktikoko bigarren saioa (martxoaren 2an) 9:00-13:00 artean Potxoenean; “fruitu arbolen udaberriko edo zotzeko txertaketa”, Josu Osaren eskutik.

■ Izena eman eta informazio gehiagorako: 943 361 114 alkartasuna.eus alkartasuna@usurbil.com

Origami tailerra

Usurbilgo Udalak antolatuta 6 urtetik gorakoentzat, martxoaren 22an, 17:30-19:00 artean, Sutegi udal liburutegian.

■ Izen ematea aurrez, martxoaren 6tik 16ra liburutegian.

KzGuneko ikastaroak

Martxoan 9:00-13:00 artean irekiko dute KzGunea. Hemen, datozen ikastaroak:

-Martxoak 1-12, 09:00-11:00 “Argazki ukitua GIMP erabiliz”.

-Martxoak 1, 11:00-13:00 “Musika aplikazioak zure gailueta-rako”.

■ Informazio gehiago:

Kale Nagusia, 37.

943 023 684

tutor.usurbil@kzgunea.net

Ikastaro irekiak

TaPunturen egoitzan

Lekua: Zubiaurrenea 6, Usurbil tapuntu.eus/ikastaro-irekiak/

■ Gifak sare sozialetan

Martxoak 25 astelehena.

Ordutegia: 9:00-13:00

edo 16:00-20:00.

Orduak guztira: 4.

Prezioa: 35 euro.

Irakaslea: Arkaitz Sukuntza.

■ Lanerako teknikak eta tresnak

Martxoak 26 asteartea.

Ordutegia: 9:30-13:30

edo 16:00-20:00.

Orduak guztira: 4.

Prezioa: 35 euro.

Irakaslea: Ainhua Iribar.

■ Komunikazio plana

Martxoak 27 asteazkena.

Ordutegia: 9:30-13:30

edo 16:00-20:00.

Orduak guztira: 4.

Irakaslea: Mikel Olaiz.

Prezioa: 35 euro.

■ Microsoft access

Martxoak 28 osteguna.

Ordutegia: 9:30-13:30

edo 16:00-20:00.

Orduak guztira: 4.

Irakaslea: Ainara De Miguel.

Prezioa: 35 euro.

Federico Malpica Potxoenean

Potxoeneko ganbara bete zuen otsailaren 20an Federico Malpica Hezkuntza Berrikuntzako proiektu eta prozesuetan aditu eta Hobekuntza Pedagogiko Iraunkorreko Egitasmoaren sortzaileak, Udarregi Ikastolak antolaturiko solasaldian. Hezitzaileak eta gurasoak gehienak, guztiek adi jarraitu zuten “Irakaskuntzaren funtzio soziala eta familia-eskola harremana” izenburupeko Malpicaren hitzaldia.



“Irakaskuntzaren funtzio soziala eta familia-eskola harremana” hitzaldiak jakinmin handia piztu zuen.

Usurbildik abiatuko da UEMAk antolatu duen gazte-topaketa

Usurbil kide duen Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) udalerrri euskaldunetako gazteei zuzendutako hiru garren topaketak antolatu ditu. Estreinakoz topaketa ibiltariak, 2019ko ekainaren 26tik 30era. Potxoenean aurkeztu zuten egitasmoa otsailaren 20an Usurbilgo Udaleko eta UEMA-ko kideek, Usurbil izango baitute abiapuntu topaketa ibiltariok.

Helburuak argiak: “Udalerrri euskaldunetako gazteak euskararen inguruan sentsibilizatzeko, kontzientziazteko eta eragile aktibo bihurtzeko”. Horrekin batera garrantzitsutzat jo zuen UEMako hezkuntza arduradun Jokin Urangak, euskal kulturaren transmisioan sakondu eta “udalerrri euskaldunetako gazteak elkarrekin harremantzea”, bizipenak partekatzeak. Horrekin batera, bisitatuko dituzten udalerrietako euskararen errealitatea ezagutzeko aukera izango dute. “Salto egin nahi dugu mundura, ikusi eta ezagutu gaitzaten, ikusi eta ezagutu ditzagun errealitate ezberdinak”.

“Gazteak pozik hartuko ditugu”

“Usurbilen pozik hartzen du topaketa hemendik abiatzea eta gazteak ere pozik hartuko ditugu”, nabarmendu zuen Alaitz Aizpurua zinegotziak. Salto topaketa ibiltariak abiapuntu izango duten udalerrri honetan, Usurbilgo eskaintzaren berri jasoko dute gazte parte hartzaileek, Harria Hitz, herriko kultur altxorretan barrera egingo duten ibilbidearen bidez. Aldiro aldiro Udalak antolatu eta 60. hamarkadan Euskal Herriak bizitako kultur mugimendura bidaiatzea ahalbidetzen duen ekimen honi esker, “euskal kultura,



Ekainaren 26an abiatuko da gazte-topaketa.

HELBURUAK

“Gazteak euskararen inguruan sentsibilizatzea, kontzientziaztea eta eragile aktibo bihurtzea”

euskara eta Usurbil zer den hobeto ezagutzeko aukera izango dute”, Aizpuruaren esanetan.

Usurbil UEMA-ko kide da 1997. urteaz geroztik, ordutik herri honek izandako erronkak eta lorpenak nabarmendu zituen Aizpuruak. Herri honek dituen lan lerro ezberdinak aipatu zituen, “herritarrak euskalduntzea, erabilera eta transmisiorako lan illoak eta udal administrazioa euskaraz aritzea”. Gaur egun, “ia ia euskara hutsean aritzen den udal administrazioa” du. Hor kokatu zuen UEMako kide izatearen garrantzia.

Euskaraz lan eta bizi ahal da

UEMA-ko lehendakari Josu Labakaren esanetan, topaketa ibiltariok Usurbilen abiatzea ez da kasualitatea. Herri erreferentetzat jo zuen Usurbil, Udala eta herria eskertu eta zoriontzarekin batera, “urte guztiotan euskara eta euskal kulturaren aldeko defentsan egiten ari den lan guztiagatik”.

Labakaren esanetan, euskaraz funtzionatzeko erabakia eta gerora, bide horretan egin-

dako ahalegina goraipatu zuen. Udala “ia erabat euskaraz funtzionatzen” duena eta herria, “euskara eta euskal kulturaren izate hori bere egiten duena”.

Herri honek euskararen alde eginiko lana erakustea eta baliolan jartzea garrantzitsutzat jotzen du UEMA-ko lehendakariak, “euskaraz lan egin eta bizitzea” posible dela erakustea. Are gehiago jakinik, azken urteotan udalerrri euskaldunetan euskararen ezagutzan eta erabileran izaten ari den atzerakada. “Udalerrri euskaldunak etorkizunean euskaldun izan nahi badugu, zenbait urrats eman beharko dira” ahalduntze bidean, “inertzia ditugun jokabide hainbatetan erortzen joaten bagara, korronte orokorak eramango gaitu” bestela.

Giltzarritzat jotzen du, “herri sentsibilizazioa, herritarrak egoeraz jabetzea”. Bide horretan, duela bost urte hezkuntza proiektu sendo bat landu eta udalerrri euskaldunetako ikastetxeetan hedatzen hasi ziren.

Duela hiru urte hezkuntza ez formalera salto egin zuten. Topaketa bat lehenik, udalekuak iaz eta proiektua sendotzen doan seinale, topaketa ibiltariak uda honetarako. “Sendotzen doan proiektu bat da”, Labakaren esanetan.

Gazteak izen ematera animatu zituzten.

Salto! Udalerrri Euskaldunetako Gazte Topaketak

Epea:

■ 2019ko ekainaren 26tik 30era.

Ibilbidea:

■ 1. eguna (ekainak 26, asteazkena): Usurbil-Oiartzun (Usurbilen “Harria Hitz” ibilbidea).

■ 2. eguna (ekainak 27, osteguna): Oiartzun-Bera.

■ 3. eguna (ekainak 28, ostirala): Bera-Arantza.

■ 4. eguna (ekainak 29, larunbata): Arantza.

■ 5. eguna (ekainak 30, igandea): Arantza.

■ Oharra: bidea begiraleekin egingo da. Egunero ekimen eta dinamika bisitatzen dituzten herrietan, herri horietako kideekin.

■ Nori zuzendua: udalerrri euskaldunetako (%70etik gorako euskararen indizea dutenak) 14-18 urte arteko gazteei zuzendua (DBH 3, DBH 4 eta Batxilergoko 1. eta 2. mailako ikasleentzat).

■ Taldearen osaketa: “lagun kopurua gaintzen bada, lurraldetasuna, genero irizpidea, eta izena eman duzuen ordena hartuko da kontuan taldea osatzeko”.

■ Prezioa: 89 euro (prezioaren barne, bost egunetako ekimenak, mantenu osoan, begiraleekin).

■ Izen emateko epea: martxoaren 31ra arte.

Izen-ematea egiteko eta informazio gehiagorako:

UEMA: Enparan kalea 1, 2a 20730 Azpeitia, Gipuzkoa 943 816 699 (astelehenetik ostiralerara, 8:00-15:00 artean) hezkuntza@uma.eus uema.eus

■ Antolatzailea: Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea (UEMA).

■ Laguntzaileak: Usurbil, Oiartzun, Bera eta Arantzako Udalak.

Kike Amonarriz, Euskaraldiaren ondorenaz Potxoenean

Euskaraldia: 11 egun euskaraz, eta gero zer? solasaldia antolatu du Euskaraldia Usurbilen eragiten aritu den batzordeak martxoaren 12rako (asteartea) 18:00etan Potxoenean. 11 egunetan bizitakoa gogora ekarri eta Euskaraldiak utzitako ondorenaz aritzeko Kike Amonarriz soziolinguista gonbidatu dute hitzordura.

3. galdetegia

Adi Usurbilgo 1.333 Ahobizi eta Belarriprest guztiok. Dakizuen bezala 2020an izango dugu Euskaraldiaren bigarren edizioa. Aurretik ordea, azaroaren 23tik abenduaren 3ra egin genuen ariketa kolektiboa borobiltzeko dugu. Dakizuen bezala,



Euskaraldiak utzitako ondorenaz aritzeko Kike Amonarriz soziolinguista gonbidatu dute. Potxoenean izango da martxoaren 12an.

Euskaraldiaren eragina neurtu nahi du Soziolinguistika Klusterrak. Horretarako hiru galdetegi prestatu zituen parte hartzaileentzat. Hirugarrena eta azkena, martxoaren 4tik aurrera jasoko duzue emaillez.

Adi beraz zuen postari. Galdetegiak betetzeak 5-10 minutu baino ez dizkizu eskatuko. Oso garrantzitsua da galdetegiak osatzea, Euskaraldiaren benetakoa eragina neurtu ahal izateko.

Haurrentzako zine zikloaren amaiera

Usurbilgo Udalak eta Zior-tza Gazte Elkartek negu parterako antolaturiko euskarazko zine zikloak berea egin du. Azken proiektzioa eskainiko dute igandean (martxoaren 3an) 17:00etan Suteagin; "Gazte harrigarria, T.S. Spivet". Sarrerak egunean bertan jarriko dituzte salgai 3 eurotan kultur etxean bertan. Hemen filmaren aurrerapena: "T. S. Spivet bere familia bitxiarekin Montanako arrantxo batean bizi den hamabi urteko jendia da. Kartografiarako eta asmakariak sortzeko daukan talentuak ordainsaria jasoko du, zientzia-erakunde batek izen handiko sari bat eman behar baitio. Maleta hartu eta ia herrialde osoa zeharkatuko du saria hartzeko".

Tapak eta aurkibideak prest

Agur esan diogu 2018 urteari. NOAUA! guztiak bildu eta 2018ko tapa eta aurkibidearekin koadernatzeko garaia da. Bazkide zaretenok, azala eta aurkibidea doan jaso ditzaitezue NOAUA! Kultur Elkarteko egoitzan

Tapa eta aurkibidea doan eskuratzen dituzte bazkideek. Bazkide ez direnek, aldiz, 3 € ordaindu behar dituzte tapa edo azalarengatik, eta 1,20€, aurkibidearengatik. Koadernatzea, Lizardin edota Lauroken egin dezakezue. Hori bai, koadernatzea berdinduz ordaindu behar dute bazkideek eta bazkide ez direnek.

2018



724-764 zenbakiak



**Ekonomia
Suspertzeko
Plana:
emakumeek
sortutako
557 enpresa
berri.**

Ekonomia Suspertzeko Planera 200 milioi euro bideratzeak, besteak beste, emakumeek bultzatutako 557 enpresa martxan jartzen laguntzeko, zentzua du soilik inbertsio horren atzean zu baldin bazaude. Eta zu bezala, gure lurralderako etorkizun hobea nahi duten milaka pertsonak.

Gipuzkoa, zenbakiekin soilik kontatu ezin diren 4 urte.

gipuzkoa.eus/etorkizunaeraikiz

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa




ETORKIZUNA
ERAIKIZ



BAZKIDEEN TXOKOA

NOAUA

martxoaren 7an ZOZKETATUKO dugu:

**SAIZAR
SAGARDOTEGIAN**

**2 LAGUNENTZAKO
afaria**

**NOAUAREKIN
TXOTXI!**

noaua! euskararen aterpe

Bazkide egiten bazara, opari eder bat jasoko duzu eta zozketa hauetan parte hartzeko aukera 943 360 321 / ekartea@noaua.eus

Sutegira datoz Willy Toledo eta “El Rey” filma

Juan Carlos Espainiako errege emerituaz dena dakigula uste badugu, oker gabiltza. Argitaratu eman ez diren pasarteak badira oraindik. Pasarteok aurrez arrakasta handiko antzezlan batean eta orain “El Rey” filmean bildu dituzte Alberto San Juanek, Luis Bermejok eta Willy Toledok. Aitzaga Kultur Elkarteak proiektatuko du filma Sutegin martxoaren 10ean, arratsaldeko 19:00etan.

Ordubete lehenago 18:00etan, filmeko protagonistetako bat kultur etxeko erakustaretoan izango da, bertaratzen zareten guztion galderak erantzuteko prest; Guillermo Toledo hain zuzen, Willy Toledo izenez ezagunagoa izango zaizue. 19:00etan filmaren aurkezpena egingo du auditorioan. Sarrerak aurrez salgai izango dituzue 5 eurotan Aitzagan eta Txirris-tran. Emanaldiaren bezperatan, Toledorekin hitz egin dugu.

NOAUA! “El Rey” filma, erregearen eta monarkiaren erretatu erreala gisa aurkeztu daiteke?

Guillermo Toledo: Borboiko Juan Carlos I erregearen errealitatearen zati bat erakusten du. Denbora luzez modu sakabanatuan berari buruz argitaratu dena ikertu dugu antzezlanerako eta filmerako. Informazio aipagarriena eta gutxien zabaldu dena atera dugu. Badira zenbait xehetasun inon zabaldu ez direnak. Benetako gertakarietan oinarrituriko istorioa da. Frogatutako hainbat egoera tratatzen ditu filmak, eta noski, elkarrizketak asmatu egin ditugu. Antzerki politikoa egin izan dugu beti. “El Rey”, estatu espainiarrean egungo egoerara nola heldu garen, galdera horretatik sortzen da. Horretarako ezinbestekotzat jotzen genuen, erantzun gehienak emango zizkigun Trantsiziora jotzea. Azal-



‘El Rey’ filma eskainiko dute martxoaren 10ean Sutegin. Willy Toledo etorriko da filma aurkeztera.

WILLY TOLEDO

“Monarkiak tabua izaten segitzen du, estatu espainiarrean oinarritzko zutabea izaten segitzen baitu”

du ez ziguten Trantsizioarekin kontu-garbitze modukoa da.

Juan Karlos Erregearekin batera, aipatu duzun moduan, garaiko beste hainbat pertsona ezagun ageri dira?

Hiru aktore gara. Luis Bermejok erregearena egiten du, Alberto San Juanek eta biok, Trantsizioa deiturikoa gidatu zuten hogeitik gora pertsonaia interpretatzen ditugu: Juan Luis Cebrian, Felipe Gonzalez, Antonio Tejero, Juan Carlos erregearen aita Don Juan, Francoren azken bost fusilatuak, Rodolfo Martin Villa... Pertsonaia mordo bat.

Nola moldatu zarete aldi berrean hainbeste pertsona ezagun antzezteko?

Gure lan egiteko modua nahiko soila da. Ez dugu makillaje edo karakterizaziorik erabiltzen,

ez ditugu ahotsak imitatzen, antzeko jantziekin moldatzen gara, halakoen beharrik ez dagoela uste baitugu.

Pixkanaka hausten ari da isiltasuna? Monarkia buruz adibidez, argi hitz egiten hasi gaitzke?

Juan Carlos erregeari dagokionez, bidea pixka bat ireki dela uste dut, baina monarkia buruz ez. Felipe VI-ari buruz aritza jazaritua izateko arrazoiak izango da, garai batean Juan Carlosekin gertatzen zen moduan. Nire ustez, bigarren Trantsizio bat bizitzen ari gara. Monarkia errentzat Juan Carlos kaltegarria izaten hasi zen, antzerrian publikatzen hasi ziren informazioekin. Azkenean, abdikatzera derrigortu zuten. Monarkiak tabua izaten segitzen du, estatu espainiarrean oinarritzko zutabea izaten segitzen baitu. Francok berreskuraturiko monarkia Espainiako frankismoaren jarraikortasun desioak irudikatzen ditu. Frankismo soziologiko eta politikoa bizirik dago oraindik. Juan Carlosi baino heldur handiagoa diot, Felipei. Ultraeskuindar oso arriskutsua da.

“Teatro del Barrio borrokarako tresna gisa baliatzen dugu”

NOAUA! Film honen atzean, Teatro del Barrio dago.

Guillermo Toledo: Alberto San Juanek, Natali Pozak eta hirurok Animalario antzerki konpainia sortu genuen, 90. hamarkadaren erdialdean. Ia 20 urtez aritu ginen, 2008an krisialdiaren eraginez itxi behar izan genuen arte. Gerora, Triangulo aretoa eraman genuen Animalarioko filosofia. Antzerkia, borroka eta hausnarketa politikorako herraminta gisa baliatzen dugu. Antzerki politikoa programatu asmo dugu.

Monarkiaz gain, gaurkotasun handiko beste hainbat gai tratatu dituzue.

“B de Barcnas” Barcnasi eginitako epaiketaren ingurukoa, frankismoa, Billy “El Niño”-ri buruzko zerbait prestatzen ari dira... Bizitzeko egokitu zaigun garai historikoarekin konprometitu eta hau arte eszenikoetara eramanez nahi dugu.

Willy Toledo: “Ahoa ixteko hobi komun batean sartu beharko naute”

NOAUA! Betoa pairatu duzu lan munduan. Zein da zure egungo lan egoera?


Guillermo Toledo: Azken 8 urteotan ordaindutako film bakarra egitea lortu dut Espainian. Pedro Almodovarrek, “Los amantes pasajeros” izena zuen. Espainian zuzendari bakarra izango da, nor kontratatu behar duen inork esango ez diona. Fermin Muguruzaren “Black is beltza” filmean eta Truebaren lan batean paper txiki bana izan nuen. Gainerakoan, doako bi filmetan parte hartu dut; “El rey” eta “Historia de Lavapiés”. Betoa erabatekoa da. Ekoizle edo zuzendari askok esaten diete, zuk nahi duzuna kontratu, Willy izan ezik. Betoa ez da soilik hedabide edo sare sozialetan esandakoengatik. Hiru urtez Madrilgo Aktoreen Sindikatuko Ekintza Sindikaleko delegatua izan nintzelako baita. Bi greba orokor egokitu zitzaizkigun, antzoki eta telebistako platóetara joaten nintzen lankideak grebara deitzera. Greba haiek arrakasta handia izan zuten.

Greba haietan zuen lan baldintzak islatu nahi zenituzten.

Estatu espainiarreko aktore gehienek, beste ogibideetako prekaritate eta esplotazio bera eta langabezia agian handiagoa bizi dugu; 12-15 orduko lan egunekin... Gremio oso zigortua da.

Lan baldintza prekarioen gai honetan, zer funtzio du zentsurak? Zenbateraino adierazi eta sortu daiteke libreki?

Libreki eta inpunitate osoz adierazi zaitezke, adierazten duzunaren arabera. Feminismoaren edota LGBT pertsonen aurka adieraziz gero, ez zaizu ezer gertatuko. Aldiz, monarkia, ustelkeria, kapitalismoa, Israel, AEB, politikariak, Eliza... aipatuz gero bai. Botere



“Hedatu ez den informazio asko dago”. ‘El Rey’ filmaren bitartez “bertsio ofizial manipulatuari, bertsio alternatibo bat eskaintzen saiatzen gara”.

WILLY TOLEDO

“Euskal Herria etxeko egongelatik paseatzea bezala da, jendearen maitasuna sentitzen dut. Nire hirian ez naiz horrela sentitzen”

faktikoei buruz hitz egiteko adierazpen askatasunik ez dago estatu honetan. Babestuak eta blindatuak daude. Begira, sortzaile hainbat espetxeetan sartzen edo Espainiatik irteten ikusten ari gara.

Fermin Muguruzaren “Black is beltza” lanean parte hartu zenuen. Zentsuraren aurkako oihu bezala definitu izan duzu? Autozentsura da bereziki borrokatu beharrekoa. Teatro del Barrion eta “El Rey” filmarekin atzerapausorik ematea ez dugu onartzen, beraiek erreakzionatu dezatela erreakzionatu behar duten moduan. Bestela garaituko gaituzte.

Jazarpen ideologikoa sufritzen ari zarela salatu duzu sarritan.

10 urteetako jazarpen mediakoaren ostean, uste dut sinestu ezinik dabiltzala nola mantentzen naizen oraindik zutik. Horrek amorru gehiago eragiten die eta gogortasun gehiagoz jarduten dute. Baina hemen naute, zutik. Ahoa ixteko hobi komun

batean sartu beharko naute.

Hedabideek eraiki duten zure iruditik urrun da kalea ezta? Babesik ez zaizu falta.

Ez zaie interesatzen gizaki bat erakustea. Guztiaren erruduna den norbait erakustea interesatzen zaie. Kapitalismoaren parte diren hedabideen eginkizunetako bat, planeta honetan bakarrik gaudela sentiaraztea da. Helarazten duten mezua honakoa da; Willy bakarrik dago, eroa dago. Inork ez du babesten. Aldiz, kalean zerbait esaten didatenean, besarkadak eta animoak jasotzeko izaten da. Noski, Euskal Herria etxeko egongelatik paseatzea bezala da, jendearen maitasuna sentitzen dut. Zoragarria da, nire hirian ez bainaiz hala sentitzen. Jendearengandik hau jaso izan ez banu, duela 10 urte amore emango nuen. Baina aurrera segitzen dut, bakarrik ez nagoelako eta jendeak hala jakinarazten didalako. Ezkertiarren artean beti, elkartasun eta enpatiaz elikatzen gara. Bestela pikutara goaz.

Martxoaren 10erako gonbita luza ezazu.

Etor daitezela, filma asko interesatuko zaie. Hedatu ez den informazio asko dago. Bertsio ofizial manipulatuari, bertsio alternatibo bat eskaintzen saiatzen gara.

Venezuelaz

“AEB muturreko krisialdian da. Halakoetan bilatzen duten irtenbide bakarra gerra batean sartzea izaten da, Maduro guztiaren errudun gisa erabili eta armen industria indartzeko. Kapitalismoaren krisialdia, berdin inbasio inperialista. Dena ematera joango direla uste dut. Errusiak eta Txinak geldiarazi ditzakete militarki. Hori gertatzen bada, badakigu gero zer datorren, mundu mailako gerra. Ez dut uste inor atzerapausorik emateko prest dagoenik”.

Vox-en agerpenaz

“Ez gaitezen izutu. Santiago Abascal duela gutxira arte PP-koa izan da. PP Santiago Abascal da eta alderantziz. Frankista faxistez josia dago. Betikoak dira. Klase altuetan muturra sartu dute, langileen mugimenduan infiltratu ez daitezen lan egin behar da orain”.

Mugimendu

feministaren iraultza

“Mundu mailako abangoardia dira, kapitalismoaren zutabe oinarrikoena, patriarkatua kolokan jarri dute. Patriarkatuan oso gustura sentitu diren gizon asko, emakumeen eskubideen aurrerapenaren aurka modu basatian erreakzionatzen ari dira orain, misoginiaz beteak”.

Migranteez

“Trumpen horma baino okerragoa dugu hemen. Guardia Zibila Marokotik Melillara igerian zihoazen pertsona talde bat erasotzen ikusi dugu. Denak absolbituak, kategoriaz igoak. Migrazio politiketan ez dugu Trump kritikatzeko inolako legitimotasunik, bera bezain faxistak bakara”.

“Emakume* guztiok daukagu gure lekua egun honetan”

Mezu hau nabarmenduz Euskal Herriko Mugimendu Feministak Martxoaren 8rako deitu duen 24 orduko greba feministarekin bat egitera deitzen ditu emakumeak. “Grega feministarekin hetero-patriarkatu-kapitalista eta arrazistari planto egingo diogu!”.

Iragarri dutenez, “Martxoaren 8an emakume*, trans eta bollerok lan guztiak, soldatapeko zein doako lanak, egiteari utzi eta kaleak hartuko ditugu. Greba feministak bizitzako esparru guztiei aurre egiten die, indarkeriari, parekidetasun ezari, prekarizateari, sexualitate eredu hegemonikoei, lanen sexuaren araberako banaketari, kontsumo ereduari, familia patriarkalari, jakintzen hierarkizazioari, arrazakeriari, edertasun kanonari eta zapalkuntza guztiei”.

Eskaera nagusiak

Bost ardatz izango ditu grebak: “pentsionista, ikasle, zaintza, enplegu eta kontsumo greba feminista izango da”. Grebaren bidez eskaerok plazaratuko dituzte. “Bizitza sos-



M8aren inguruko deialdiak bideratzen aritu den emakume-taldea, Potxoenean.

ARDATZ NAGUSIAK

Bost ardatz izango ditu grebak: “pentsionista, ikasle, zaintza, enplegu eta kontsumo greba feminista izango da”

tengatzeko ardura kolektiboa eskatzen dugu. Horretarako, zaintzaren berrantolaketa soziala aldarrikatzen dugu, politika publikoen zeharkako ardatza izan dadila, pertsonen zaintza ez dadila zapalduon bizkarrean geratu. Finean, paktu sozial berri bat eskatzen dugu. Bide horretan, parekidetasuna bermatzeko politikak eta ber-

dintasun formalaren garapea ezinbestean uztartu behar ditugu sakoneko eraldaketa prozesu batekin”.

Greba egiteko moduak

- 1- Lantoki eta ikasgeletan grebara batuz.
- 2- Herri eta hirietako mobilizazioetara joanez: 12:00 / 19:00.
- 3- Zaintzeari utzita eta hori irudikatze amantala balkoian eskegita.
- 4- Besoko morea jantziz.
- 5- Greba antolatuta eta zabaldua.
- 6- Merkatuan kontsumitzeari utziz.

Gizonentzako gida

- Seme-alabez arduratu, ezta-

baida zein ikasle greba lagundu.

- Lagunen umeak zaindu ditzakezu.

- Emakume* lankideen lana egiteko eskaini ahal duzu zure burua, egunoko soldata mugimendu feministari eman diezaikezu.

- Enpresako nagusia bazara enpresa itxi.

- Ikasle edo irakasleok ikasleen lanuztea babestu.

- Zaintza behar duenik baduzu, hasi ohitura emakumeok* betetzen dugun lan horretaz arduratzen.

- Zaintza komunitarioko espazioak autonomoki sortu.

- M8ko bazkari herrikoietan... lana egiteko zure burua eskaini.

- Zaintzeko soldatapeko emakume bat baduzu inguruan, zure burua eskaini egun horretan lan egiteko.

- Ez kontsumitu.

- Beste gizonekin bildu zaitzke maskulinitateen inguruan hausnartzeko.

- Zabaldu mezua.

Informazio gehiago:

grebafeminista.wordpress.com

Datozen deialdiak

Martxoak 1, ostirala

- 19:00 Martxoaren 8ko greba feminista babesteko EHBilduko emakumeen argazki agerraldia Mikel Laboa plazan.
- Deitzailea: EHBildu Usurbil.

Martxoak 5, asteartea

- 18:30 Martxoaren 8ko greba feminista prestatzeko bilera irekia Potxoenean, Urdintxo gelan.
- Deitzailea: emakume talde bat.

Martxoak 8, ostirala:

24 orduko greba feminista

- 09:30 Auzoetatik Dema plazara! Hitz egin emakume*

bizilagun, auzotar eta gainerakoekin. Batera, bakarrik... Baina gogoratu 10:00etan Dema plazan geratu garela!

- 10:00 Dema plazatik Kaxkoan ibilbidetxo bat egingo dugu.

- 10:30 Grebako bost ardatzen inguruan hausnartuko dugu (ikasleak, enpleguak, pentsiodunak, zaintza eta kontsumoa).

- 13:00 Kalejira alai eta zaratatsua! Emakumeok* heteropatriarkatu kapitalistari planto! Amaieran, argazki erraldoia Dema plazan.

- 14:00 Bazkaria frontoian. Nork bere tuperra ekarri eta ingurukoekin elkarbanatu nahi izanez gero ere, prime-

ran!

- Ondoren, bazkaloste girotua. Mikrofono irekia egongo da, herriko emakume artistentzat. Abesti batzuk kantatu, poesia errexitatu, antzeztu... Aurrez izena eman telefono zenbaki honetan: 634 453 333.

- 17:30 Neska* gazteek akelarrea egingo dute eta herri guztia dantzan jarriko dute!

- 19:00 Donostiako ekitaldia indartzerat!

- Antolatzailea: emakume talde bat.

Oharra: 12:30-14:30 / 16:30-18:00 Gizon talde batek antolatuta, umeentzako zaintza gunea Askatasuna plazan. Izen ematea: martxoaren 1ean Oiardo Kiroldagiko mahaian

(Inauterietako emanaldiak ospatuko diren ordutegian), usurbilm8gizonak@gmail.com, Bortatxo, Txirristra eta Aitzaga tabernak.

Martxoak 10, igandea

- 10:30 30. Lilatoia Donostian. Informazio gehiago: lilaton.es

Martxoak-maiatzak

Batukada feminista ikastaroa, martxoaren 1ean, 15ean, 29an, apirilaren 12an eta maiatzaren 10ean eta 24an, 17:00-19:00 artean, Udarregi Ikastolako erdiko aretoan. Izen ematea: Parekidetasun Saila, parekidetasuna@usurbil.eus, 943 377 110. Antolatzailea: Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Saila.

Inauterien asteburua hemen da

Ikastetxeetako mozorro festak

Otsailak 28, osteguna

■ 15:00ak aldera Aginagako Eskolako Inauterietako emanaldia Eliza Zaharrean. Gaia: zirkoa.

Martxoak 1, ostirala Udarregi Ikastola

■ 10:15 HHkoen festa. Eguraldi onarekin frontoian, bestela, Oiardo kiroldegian.

■ 11:00 Bi autoen atzetik LH eta DBHkoak desfile moduan, dantzan aterako dira herrian zehar.

■ 11:45 DBHkoen dantza ikuskizuna Oiardo Kiroldegian.

■ 15:30 LHkoen dantza ikuskizuna Oiardo Kiroldegian.

Martxoak 1, ostirala Zubietako Eskola

■ 15:30 Zubietako Eskolako Inauterietako kalejira. Gaia: Erdi Aroa. Ibilbidea: Eskola,



Larunbat honetan, eguerdiko 11:30ean hasiko da Inauteri Festako kalejira. Frontoitik abiatuko dira.

Alamandegi, Barazar eta plaza eguraldi onarekin. Euria bada, frontoian.

Inauteri Festa

Martxoak 1, ostirala

■ 19:00 "Orbeldi Usurbilgo dantza taldearen kalejira he-

rrian zehar. Bukaeran, 20:00ak aldera, Gipuzkoako makil-jotzaile dantzak frontoian. Antolatzailea: Orbeldi Dantza Taldea.

Martxoak 2, larunbata

Gaia: JOLASAK (Mahai jolasak, denetarikoko jokoak...).

■ 11:00 Inauterietan jolasak familia giroan frontoian, herri osoari zuzendua.

■ 11:30 Frontoitik abiatuta, Inauteri Festako kalejira eta desfile herrikoia Kaxkoan barrena Burrunbazale txarangarekin, Zirimara eta Gaztelekukoekin. Mozorrotu eta batu guztiok desfilera!

■ 16:00 Karaoke Festa Gaztelekuan. Mozorrotuta etorri!

■ 17:30-19:30 Frontoitik abiatuta, Burrunbazale txarangarekin kalejira.

■ 17:30 Bingo jolasa Gaztelekuan.

■ 19:30-21:00 Ttipika taldearen dantza gidatuen emanaldia eta erromeria frontoian. Plaza-ara, dantzara!

■ 01:00-02:30 Larrian Gozo Usurbilgo taldearekin gautxori morrozotu eta jostalarien erromeria frontoian.

■ Antolatzailea: NOAUA! Kultur Elkarte.

Zubietatik abiatu zen Euskal Inauteri Festa



Aurreko larunbatean ospatu zen Euskal Inauteri Festa. Zubietatik abiatu ziren eta Lasarte-Orian izan zuen segida jaiak.



Aurten, martxoaren 2arekin egokitu da Inauteri Festa. Ohiturari jarraituz, astebete lehenago ospatu zuten Eus-

kal Inauteri Jaia. Zubietatik abiatu zen kalejira. Dantzan, trikitixaren erritmoan osatu zuten Hipodromoko

zubira doan ibilbidea. Lasarte-Oriako lagun ugari batu ziren bertan. Senidetze ekitalditxoaren ondoren,

jai giroak Lasarte-Orian jarraitu zuen. Iaz ez bezala, aurten eguraldi zoragarria egokitu zaie.

Ttipika: “Jantzi mozorroa eta lotu dantzara!”

Ttipika Dantza Gidatuen taldeak Inauteri Festan eskainiko duen emanaldiarekin abiatuko du jendaurreko hirugarren denboraldia. Mozorro festarako gogotsu da. Dantza zaletu guztioi plaza hartzeko gonbita luzatzen digute Ttipikakoek.

NOAUA! Denboraldi berri baten atarian dago Ttipika.

Ttipika: Urrian eman genuen gure azkeneko kontzertua, atsedena hartu genuen gero. Urtea hasi denetik aurtengo denboraldi berria prestatzen ari gara. Inauteri Festakoa izango da lehenengo emanaldia.

Inauteri Festako afalurrea gironzera zatozte?

Afalurreko tartean, giro bikaina, dantza egiteko gogoa, azalpenak, erritmo bizia, barre egiteko aukera aurkituko du jendeak frontoian. Mozorrotuta dantzan aritzeko aukera bikaina.

Ttipika ezagutzen ez duenik bada, dantza gidatuen taldea zaretela esan behar?

Bai. Dantza egiteko emanaldiak eskaintzen ditugu. Dantzak gidatzen dituen pertsona bat egoten da, azalpenak ematen. Dantza oso errazak dira. Buru pixka bat eta oreka pixka bat izatearekin aski da dantzan aritzeko, ez da maila zehatzik izan beharrik.

Orientatzeaz gain, laguntza ere eskaintzen duzue?

Publikoaren arabera moldatzen gara. Publikoak dantzan badakiela ikusten badugu azalpen luzerik ez da izaten. Jendea kostatzen bazaio, azalpen zehatzagoak ematen ditugu. Jendearengana moldatzen gara. Dantzan gehien kostatzen zaion jendea saiatzen gara erakartzen, edozeinek dantza egin dezakeela



Dantza zaletu guztioi plaza hartzeko gonbita luzatzen digute Ttipikakoek. Larunbat arratsaldean frontoian topatuko dituzue.

TTIPIKA

*“Afalurreko tartean,
giro bikaina,
dantza egiteko gogoa,
azalpenak, erritmo bizia,
barre egiteko aukera
aurkituko du jendeak
frontoian.*

*Mozorrotuta dantzan
aritzeko aukera bikaina”*

konbentzitzen.

Abesti batzuk sortuak badituzue.

Taldeak helburu desberdinak ditu. Dantzak egin ahal izateko bere musika sortu edo moldatzen du. Dantzak ere sortzen ditugu musika horientzat.

Egiguzue larunbaterako gonbita.

Jantzi mozorroa eta lotu dantzara!



NOAUA! Pare bat urteko ibilbidea osatu duzue jada. Balantzea egiten hasita, zer nabarmenduko zenukete?

Ttipika: Duela bi urteko Dantza Egunean hasi ginen, aurtengoa hirugarren denboraldia izango da. Balantze oso positiboa egiten dugu. Hasieratik espero genuena baino babes askoz handiagoa izan dugu. Lehen denboraldian, 10 bat kontzertu ematera iritsi ginen probintzia askotan; tartean, Nafarroan, Lapurdin... Nafarroa Oinezetik deitu zi-

guten. Euskal Herriko mugak zeharkatuz, Kataluniara joatea lortu genuen. Guk uste baino harrera hobea izan dugu eta oso oso gustura gaudete.

Hirugarren denboraldira begira erronkarik?

Pixkanaka kanta gehiago sortzea, errepertorio propioagoa izatea, nahiz eta tradizionalak ez ditugun inoiz baztertuko. Taldeari gure esentzia propioa ematea eta lanketa horretan sakontzea.

Larrian Gozo: “Parranda polita egiteko aukera”

Bueltan datoz Enara Eizagirre Hueta (bateria), Ane Azkonobieta Irazusta (trikitia eta bigarren ahotsak), Lide Pagola Agorreta (kitarra), Xabi Lazkano Iturrioz (baxua) eta Olatz Allur Maiz (pandero jolea eta ahotsak), bueltan dator Larrian Gozo! Inauteri Festako gautxoriak dantza batean jartzera. Haiekin izan da NOAUA!

NOAUA! Usurbilgo jaietako lehen emanalditik nola ikusten duzue taldeak jorratu duen ibilbidea?

Larrian Gozo: Talde kideen artean aldaketa batzuk izan ditugu, orain kitarra bakarra dugu. Oinarrizko erreperitorioa abesti berriekin hobetzen saiatu gara. Talde barruan beste koherentzia, elkar ezagutza eta konfiantza dago egun. Gustura gabilta eta gainera kontzertu gehiago ateratzen ari dira. Gogotsu gaude.

Nola bizi izan zenuten Usurbilgo jaietako lehen kontzertu hura?

Jaietako azken eguna zen, herrian zen gainera. Ez zen gaizki atera, ondo pasa genuen baina hobeto egin genezakeen arantza hori hor geratu zitzaigun. Halere, gerora eskaini ditugun beste kontzertuekin, Gazte Egunean eskaini genuenarekin esaterako, sentsazio hori gainera kendu dugu eta oso gustura gaude. Orendaingo jaietako kontzertua inflexio puntua izan zen taldearentzat. Ondo atera zen, jendea dantzatzan ikusi genuen, oso pozgarria izan zen. Konfiantza handia ematen du horrek.

Santixabelak, San Praixkuak, Orendain, Gazte Eguna... Leku gehiagotatik deika dituzue orain.

Nahiko harrituak gaude. Espero baino gehiago ari zaizkigu idazten. Tarte gutxirekin dei-



Bueltan dator Larrian Gozo Inauteri Festako gautxoriak dantza batean jartzera.

LARRIAN GOZO

“Oinarrizko erreperitorioa abesti berriekin hobetzen saiatu gara. Gustura gabilta eta gainera kontzertu gehiago ateratzen ari dira. Gogotsu gaude”

tu digutelako ezezko batzuk eman beharrean aurkitu gara. Halere data batzuk finkatuak ditugu. Usurbili dagokionez, auzoetako jaietako kontzertu batzuk lotu ditugu. Herriatik kanpotik ere eskaintza batzuk jaso ditugu.

Sare sozialen eragina nabaria da ezta?

Ia dena sare sozialetatik mugitu da. Bestalde, kanpora ateratzeak eta jendeak ikuste horrek ere kontzertuak lotzen laguntzen du. Herriatik kanpo jende ezaguna izateak asko laguntzen du.

Zein da taldea identifikagarri

egiten duen zuen musika estiloa?

Berbena taldea da, trikiti alde-asko jotzen dugu. Halere ez dugu estilo guztiz definitua, kanta gustukoa badugu horrekin saiatzen gara edo moldatzen dugu. Ezin bada, beste kanta bat bilatzen dugu, beti gure zaletasunen arabera.

Horretan publikoak eragingo du. Zer nolako zaletuak dituzue?

Moldatu egin behar. Zonaldearen arabera, denetarik dago. Usurbilen agian ez dira oso dantza zaleak, baina kantaren arabera topera abestuko dute. Orendainen esaterako, topera dantza egiten dute.

Nola doazkizue Inauterietako prestaketak?

Urtean zehar entseatzen segitzen dugu, baina kontzertu bati begira garenean ordu gehiago sartzen ditugu. Ez taldean bakarrik, baita bakoitzak bere aldetik etxean kantak prestatzen. Abesti berri batzuk sartu ditugu.

Larunbat gauez, “parranda polita egiteko aukera”

NOAUA! Herrira itzulera izango da zuentzat.

Ia oraingoan zenbatek egiten duten dantza. Mikel Laboa plazan hasi ginen, Askatasuna plazan jo genuen, frontoia falta zaigu probatzeko. Gogotsu gara. Sagardotegietan afaltzeko ohitura dago inauterietan, gazteen artean. Aurten ere itxura hori duela ematen du, gero jendea frontoira jaitsiko dela espero dugu.

Frontoira gerturatzen denari zer eskainiko diozue oholtza gainetik?

Parranda polita egiteko aukera. Gozatzeko, dantza egiteko eskaintza desberdina. Azken urteetan tabernetara joatea izan da joera. Aurten, zuzeneko emanaldi herrikoia. Animatu eta etorri!

“35 urteetarako gatazkarik ez! Adostasuna, osasuna eta bakea!”

Adostasunaren olatua barneratu zen larunbat arratsaldean Donostian, GuraSOSe hiriburuan deitutako manifestazioan. Milaka lagun, antolatzaileen esanetan, inoiz izandako mobilizazio jendetsuena, hondakinen kudeaketarekin dugun gatazkararen aldeko irtenbide hitzartua eskatzen. Hasi Antiguoko tuneletik, eta Donostia erdigunean barrena Bulebarreraino hedatu zuten aipatu aldarria, hezkuntzako profesionalak eta osasun zein ingurumenaren defentsarako herri mugimenduetako ordezkariak buru zituen manifestazioarekin. Bidean hazten joan zen, txalo artean hartu zuten manifestari kopurua.

“Gure haurrak, ingurumena eta osasuna babesteko etorri gara!”, zioten GuraSOSeko ordezkariak, Bulebarreko ohol-tza gainetik, manifestazioan parte hartu zuten milaka lagunei eskerrak helaraztearekin batera.

Erakundeek hainbat komunikabideren laguntzaz, gizarteari hitza kendu eta “hutsaren hurrengo garelara sinestearazi” nahi izan arren, “gizarte esnatu da. Ez dago lo!” gogorazti zuten, erakundeek aldetik jarritako trabak salatzearekin batera.

“Ez da erantzunik izan”

Gipuzkoako Foru Aldundi-ko agintariak hartu zituzten ahotan. Aldaketarik ez bada, datorren martxoaren 6an onartuko dute Batzar Nagusiek, Gipuzkoako agintariak (EAJ, PSE) landua duten 2019-30 urte arterako Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kudeaketa Plana. Gogoan izan ordea, gipuzkoarrek landutako Hitzartu plan alternatiboa ere Aldundia-



“Gure haurrak, ingurumena eta osasuna babesteko etorri gara!”, zioten GuraSOSeko ordezkariak.

GURASOS

Gizarteari hitza kendu eta “hutsaren hurrengo garelara sinestearazi” nahi izan arren, “gizarte esnatu da. Ez dago lo!” gogorazti zuten, erakundeek aldetik jarritako trabak salatzearekin batera

ren esku dago. Prozesu honen testuinguruan eratutako Berme Batzordeak elkarriketarako bidea irekitzea eskatu zien foru agintariei. “Ez da erantzunik izan”, zioten GuraSOSeko ordezkariak Bulebarreko ekitaldian.

“Egiarekin konprometituak gaude”

Zubietako erraustegiari lotua, proiektu honen sustatzaileek ezkutuan zituzten dokumentu konfidentzialak eman ditu argitara asteotan. “Egiarekin konprometituak gaude, ez dugu sekreturik nahi ingurumen eta osasunari eragiten dieten gaietan”, GuraSOSe-ko kideek ziotenez. Eta Foru Aldundiak azken egunotan esandakoaren harira, haiei

zuzenduta ziotenez, “ez duzue ezer ulertu! Ez gaude borrokarako, elkarlanerako, aurrera elkarrekin egiteko baizik”, eskuetan zapi zuriak astintzen zituzten artean. Adostasunerako keinuak eginez, Foru Aldundiak landu eta onartzearen ondoren hondakinen kudeaketa planaren zenbait proposamen, “gureak egiten ditugu. Adibidez, TMB-a, biometanizazioa, baina labeak ez! Erraustegia inola ere ez! Erraustegiari ez!”, oihukatu zuten hizlariak eta han zirenek, txalo artean.

Elkarlanerako deia, Europatik eskatu bezala

Hondakinen erraustetaren aurrean, jendarteak emandako irizpideak gogorazti zizkien GuraSOSeko foru agintariei. “Osasuna lehenestea, eraikin eta instalakuntzak ahalik eta gehien aprobetxatzea eta bideragarri izatea”. Hitzartu planaren oinarriak ditugu honako hauek. Aipatu moduan ordea, martxoaren 6an onartzekoa dute Batzar Nagusiek Foru Aldundiaren plana. Eta horrekin, “garaipena irudikatu nahi duzue Batzar Nagusietan. Ez egin gerra gizartearen aurka. Begira zer dioten Europatik,

Frans Timmermans Europako Batzordeko lehen presidente ordeak: ingurumen erronkei, eta zehazkiago hondakinenei, hiritarren eta gobernuen arteko elkarlanarekin aurre egin behar zaie”.

Gipuzkoan ere oraindik garaiz gaudela gogorazten du GuraSOSe, “eskura dugu benetako aukera, benetako konponbidea. 35 urteetarako gatazkarik ez! Adostasuna, osasuna eta bakea!”.

Korapilo gabeko soka

Aipatu moduan, sinboloez jositako ekitaldia izan zen Bulebarrekoa. GuraSOSen ekitaldian zehar, haur bat soka bateko korapiloak askatzen aritu zen. “Soka hau askatzen, desadostasunaren korapiloak desegin nahi izan ditu. Hemen soka berri bat, herritarrok erakundeei eskainia. Denon artean, Gipuzkoa osasuntsu eta hobea josi dezakeena”.

Hondakinen kudeaketaren ardura guztiona dela gogoraziz, “adostu dezagun mesedez!” galdeginez amaitu zuten, Joxan Artzek sortutako “Txoriak txori” abestuz milaka lagun batu zituen manifestazioa.



Jendetza batu zen Donostian. Gipuzkoan oraindik garaiz gaudela gogorarazten du GuraSOSeK, hondakinen inguruko gatazka adostasunez konpontzeko.

Zirimara, Eskola Kiroltik aisialdi eskaintza zabalera

Larunbateko Inauteri Festa jolasean hasiko dugu Zirimara egitasmokoen eskutik. Hitzordu irekia antolatu dute, Eskola Kiroleko egitasmo eraberrituko sustatzaileek martxoaren 2rako. Udarregi Ikastola, Usurbilgo Udala eta NOAUA! K.E. kide izan eta ikasturte honetan abiaturiko proiektua zertan den galdetu diegu Zirimara kideei.

NOAUA! Aurkezterik bai, eskola kirola hutsetik haratago doan aisialdiko egitasmoa?

Zirimara: Eskola Kirolaren barruan kokatzen da. Orain arteko eredua, kirolean asko zentratzen zen. Horrek partaide batzuk aktibatzea ahalbidetzen zuen, baina beste batzuei ez zitzaizkien eskaintzen Eskola Kirolaren baitan bestelako jarduerak batzuk. Oraingo ereduak, aukera aniztasun handiagoa eskaintzen dituen jarduerak fisikoa eta kirola barnebiltzen ditu. Kirolarekin batera orain arte landu gabe geratzen ziren beste esparru batzuk lantzeko aukera eskaintzen du baita, aisialdi erreferentzia bezala hartuta: kalea, gorputz adierazpena, jolas librearen espazio desberdinetan... Lehendik zegoen eskaintza osatzera dator.

Gabezia batetik abiatzen da Zirimara?

Bai. Eskola Kirolaren eskain-



“Eskola Kirolaren eskaintzari orain aisialdiaren ikuspegia txertatu zaio, eta aisialdiko begiraleak kontratatu dira”.

ZIRIMARA

“Kirolarekin batera orain arte landu gabe geratzen ziren beste esparru batzuk lantzeko aukera dago”

tzarekin ikusten genuen, batzuk kirol jarduerak gustuko zituztela, baina beste batzuen betebeharrak ez genituela asetzen. Kirol munduko begiraleak genituen. Hor orain aisialdiaren ikuspegia txertatu da, eta aisialdiko begiraleak kontratatu dira.

Orain artekoaz, zer nolako balantzea egin dezakezue?

Beste behar eta interesak di-

tuzten haurrak parte hartzea eta iaz segi edo ez zalantzan zirenek jarraitzea oso positiboa da. Gurasoekin eginiko bileran, bereziki, kaleko proposamenen egokitasuna nabarmendu zen. Kiroldegitik kalera ateratzea. Espero ez ziren ekintzak egin dira kalean, naturarekin lotutakoak, kalean topatzen zituzten gauzekin jolastuz... Adin tarte ezberdinetako ikasleak nahastu ditugu. Halere, hobe zeko lan ildoak baditugu.

Ikasleak eta gurasoak nola kokatu dira egitasmo berri honetan?

Aldaketari beti beldurra zaio, aldaketa hori gozatzen saiatu ginen. Lehen asteetan bertan

behera geratu ziren beldurrak. Pixkanaka lortu behar duguna da, Zirimara ez izatea zerbitzu bat. Gurasoek ere bere egitea proiektu hau, umeek egiten duten moduan, denon artean herrian beste dinamika batzuk sortzen laguntzearekin batera.

Zirimarak herrira zabaldu nahi du beraz.

Eskola Kirola azkenean denentzako da. Aginaga eta Zubietako eskolako koadrilatxo bat etortzen da, Lasarte-Orian ikasten duten batzuk ere badatoz. Hemen edo kanpoan ikasten dutenentzat irekia dago. Herri gunetik kanpo ikasten dutenentzat, ordutegi ezberdinak ditugu.

“Sarrera ordutegi malgua dugu”

NOAUA! Nolakoa da Zirimarako dinamika egun bat?

Zirimara: Sarrera ordutegi malgua dugu, 16:30-17:00 artean, nahi duenak ikastetxetik lasai atera eta askaldu dezan. 17:00etan biltzen ditugu adinaren arabera bi eremutan, ikasle kopuru handia baita. Zer egin erabakitzen da. Gero jolas au-

togestionatuekin hasten gara. Bi formatu ditugu, 7 talde. Kirola, gorputz adierazpena, kale jolasak... Saio bereziekin tartekatzen dugu: harrapaketa jolasak, ginkana, herri kirolak, jolas arruntak beste baliabide batzuekin...

Gero bildu eta 10-15 minutu beraiekin saioa baloratu eta hausnartzen dugu.



“Jolas autogestionatuekin hasten gara”.

“Zirimararekin kalean jolastea bermatzen da”

NOAUA! Hausnarketa tarte horietan, zer da jasotzen duzuen?

Zirimara: Jasotako hitzak “oso ondo” eta “noiz joango gara berri?” izaten dira. Lehenengo mailakoak dira hasieratik Zirimara egitasmoa ezagutzen ari direnak, aurreko eredu ezagutu ez dutenak. Lehenengo formatutik datozen 2, 3 eta 4 mailetako ikasleak berrikasten dabilta. Lehen mailatik hasten direnak modu hau lantzen, beste ikuspegi zabalago bat eraikiko dute aurrera begira ere eta eskaintza hau egonkortzen lagunduko dute. Pedagogia pixka bat egiteko denbora behar da, baita gurasoen eskemak aldatzeko ere. Zer garrantzitsua den bi orduko saioak izatea, harreraren lasaitzeko, ekintzak egiteko kalera atera eta bestelako ekintzak egiteko eta amaieran egindako horren inguruan hausnartzeko. Lehen saioak gidatuak izaten ziren. Orain modu antolatuan planteamendu autogestionatuak garatzen hasi dira, kalera atera eta ziurgabetasun handiagoa dute, interesgarria da hori jola-



Argazkian Zirimararen bueltan dabilzan begiraleak.

ZIRIMARA

“Hezitzaileen lana baloratu behar da. Asko espezializatu dira”

sarentzat eta haurren garapenerako. Lortu da toki irekietara zabaltzea, kalera ateratzea, eguraldi txarrik ez dagoela ulertzea. Zirimararekin kalean jolastea bermatzen da. Esparru desberdinetan kokatzen jakitea, begirale

eta testuinguru desberdinetan, material anitzekin, proposamen gidatu edo irekiagoekin, adin ezberdinetako jendearekin. Dena da ikasketa bat azkenean.

Proiektuaren eboluzioa aztertzen ari zarete.

Laguntzen ari garen taldetxo horretan, gehienok ikerketa mundura dedikatzen gara arlo honetan, eremu fisiko eta kirolean. Aurreko bi urteetan ebidentzia asko bildu ditugu. Aurrera begirako erronka, esaten

duguna eta ebidentzia zientifikoa bat eginda joatea da. Ekintzen eragina aztertzen ari gara taldetxo bat. Hezitzaileen lana baloratu behar da. Asko espezializatu dira. Bestalde, saioak bi ordutara luzatzeak, gurasoak haien aisialdi tarteari erabilera desberdin bat ematen hasi dira, lehen ez bezala. Batzuk kirola egiten hasi dira. Eskola Kirolaren helburua hori da hain zuzen, gerora praktika horrek irautea. Kezkagarria baita 14 urtetik gora nola jaitzen den federaturiko kirolari kopurua. Erronketako bat da honi nola jarraipena ematea.

Hau zabaltzea litzateke asmoa?

Hiru lan lerro ditugu. Eskaintza maila gehiagotara zabaltzea. Bigarrena litzateke aisialdi talde bezale egitura finko bat eman, herriari erantzungo dion ekimen bat izatea. Hirugarren lan ildoak da, topaketa bat antolatzea, beste herrietako ereduak ezagutu eta zertan hobetu ikasteko.

Zirimararen abestia

Larunbateko jolasetan abestu eta dantzatuko den kanta duzue ondokoa, Zirimara egitasmokoek sortu dutena. Hemen abestiaren letra:

KALABERA doinuan.

Zirimara, zirimara... zirimara, zirimara...
dena ez da ta ez dena bada
gaur elurra, xirimiri gaur euria, mara mara
amesten dugun hura gara.

Eskolako lau hormen/ kanpoan zer dagoen
geurez ikasteko prest gaude hemen.

Lehorreko pirata/ bat gaztainak tiraka
banbu bat moztuta egin du hanka!

Apustu ta iritzi/ malda igo ta jetxi
belar-meta hartara nor iritxi.
Kaina eta txardango/ iturri baten trago...
kalekoa baino hobea dago.

Pantailak pasatzera/ ez gabilta, bai zera!
baizik zuhaitz batetikan bestera.

Gauaren ikusmiran/ ilargiak dir dir han
kantuan aritu gara su-jiran.

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

RPS: 28/17

20170
USURBIL

ETXETRESNEN
KONPONKETAK
eta SALMENTA



MARKA GUZTIAK
azkar, prezio onean
20 URTEKO ESPERIENTZIA

645417665

XABIER Usurbil

ZALDIGAIN

ERREMENTARIA

- Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
- Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuarteak....

www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867
Fax: 943300045

Klima Aldaketaren inguruko nazioarteko biltzarraren atarian mobilizatzeko deia

Astearte goizean Donostiako Udaleko prentsa aretoan eginiko ageraldi bidez, elkarretaratze bana deitu zuen Errausketaren Aurkako Mugimenduak martxoaren 5 eta 6rako Donostian ospatuko den “Change the Change” Klima Aldaketaren inguruko nazioarteko biltzarraren harira.

Jada hainbat eragileren babes dute mobilizaziook: Ekologistak Martxan, Eguzki, ELA, LAB, ESK, CCOO, Equo, Irabazi, EHBildu, Sortu, Ernai, Beltza 2 Gelditu, Satorralaia... Bi elkarretaratze deitu dituzte datorren asterako:

■ Martxoak 5, asteartea
19:00 Alderdi Ederren.

■ Martxoak 6, asteazkena
19:00 Kursaal.

Mobilizazio hauek iragaritzeko deitzaileek agerraldian erakutsitako karteak argi zioten. “Erraustegi bat bultzatzen ari dira eta Aldaketa Klimatikoa hitz egin nahi digute. Lotsagarria. Erraustegia = Klima Aldaketa”.

“Change the Change” nazioarteko biltzarra, Donostiako Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak eta Espainiako Gobernuko Trantsizio Ekologikorako Ministerioak antolatu dute martxoaren 6tik 8ra.



Errausketaren Aurkako Mugimenduak elkarretaratze bana antolatu du Klima Aldaketaren inguruko nazioarteko biltzarraren harira.

DEITZAILEAK

“Adituek aipatzen dituzten neurrien justu alderantzizkoak ari dira hartzen gure agintariak”

Benetako konpromisoaren alde Biltzar honetara datozenek eskaera argia luzatu die Errausketaren Aurkako Mugimenduak. “Ez utzi EAE, Gipuzkoa eta Donostiako agintariak ‘green-washing’ merkea egiten, eskatu benetako konpromisoa herritarren eta Lurra planetaren etorkizunarekin, exijitu klimaren aldaketa okerragotzen duten proiektuak baztertea”.

Tartean Donostiako lurretako bi proiektu nabarmendu zituzten, Añorgako Rezola porlan lantegia eta Zubietan eraikitzen ari diren erraustegia. “Oraindik garaiz gaude bigarren erraustegi hau gelditze-

ko. Donostialdea oso ingurune kutsatua baldin bada, ezin digute hemengo herritarroei pozoi gehiago zabaldu erraustegi berri batekin. Obra berriarekin gure diru publikoak hipotekatuta geratuko dira 2051 arte, noiz eta klimaren aldaketak mundu osoan ekarriko dituen kalteei aurre egiteko inbertsio eta diru publiko asko beharko diren urteetan”.

Nazioarteko biltzar horretako partaideei adierazi nahi diete, “agintariak oso gaizki ari direla egiten gauzak, klimaren aldaketa erremediatzeko adituek aipatzen dituzten neurrien justu alderantzizkoak ari dira hartzen gure agintariak”. Bai Donostia, Gipuzkoa eta EAE-ko agintariak, “itsu-itsuan laguntzen dituzte klimarentzako kaltegarriak diren proiektuak, bideragarritasun ekonomikorik eta sozialik edukiko ez dutenak”.

Kantu Taldearen

10. urtemuga

Martxoak 30, larunbata

■ 11:00 Ongietorria hamai-ketakoarekin Askatasuna plazan.

■ 12:00-14:00 Kantujira Usurbilgo kaleetan, Mikel Laboa plazatik abiatuta.

■ 14:00-18:00 Bazkaria Aginagako Urdaira sagardotegian.

Prezioa: 31 euro. Izen ematea: martxoaren 14ra arte, 630 252 939 (Lurdes) telefono zenbakian. Oharra: leku kopuru mugatua.

■ Antolatzailea: Kantu Taldea.

Hitzaldia

DYAren egoitzan

Martxoak 7 osteguna

■ Hitzaldia, Lehen Sorospenak.

■ 19:00etatik 21:00etara, DYAren egoitzan.

■ Doakoa, larrialdien edo istripuen aurrean zer egin eta zer ez egin jakin nahi dutenei zuzenduta.

Martxoak 9 larunbata

■ Bihotz-Biriketako Susper-tze tailerra.

■ 17:00etatik 19:00etara, DYAren egoitzan.

Helduak (aita/ama, aitona/amona, osaba/izeba...) 6 urtez gorako hiru umeei eman dezake izena.

■ Prezioa: 8 euro.

Izen-ematea:

943 46 46 22

www.DYAgipuzkoa.com

Elkar eta Gureak Usurbila ekartzeko proiektuaren aurkezpena

Usurbilgo lurretara, Michelin ondora datoz Elkar eta Gureak lantegiak, proiektu sozioekonomiko garrantzitsu baten testuinguruan. “Usurbilgo herriaren baloreekin bat egiten duten eragile ekonomikoak dira”

eta alde horretatik, “Elkar eta Gureak-en ezarpenak eragin positiboa izango du Usurbil-entzat eta eskualdearentzat, baita bertako hainbat sektore eta enpresarentzat ere. Aukera berriak irekiko dituelakoan

gaude, sinergia berriak eta elkarlan-dinamika berriak”, Usurbilgo Udaletik diotenez.

Proiektuaren nondik norakoak aurkezteko ekitaldia deitu du Usurbilgo Udalak ostegunerako (otsailak 28)

18:30ean Sutegiko erakusketa aretoan. Hitzorduan parte hartuko dute Xabier Arregi alkatetik, Gureak-eko presidente Iñaki Alkorta eta Elkarlanean Fundazioko presidente Joxemari Sorsek.

Joko Garbi txapelketa, azken fasean

Lehen fasea igarota, azken txanpan da jada. Gipuzkoako Joko Garbi Txapelketako finalerdiak egunotan jokatu dira, martxoaren 17an final handia. Asteazken honetan (otsailak 27) 19:00etan jokatzea zuten Zubietako 1 eta Zubietako 2 taldeek finalerdiko saioa, Zubietako frontoian bertan.

Informazio gehiago:
gipuzkoapilota.eus



Finalerdiak egunotan jokatu dira. Finala, martxoaren 17an.

Martxoaren 9an, Oriako 25. Traineru Jaitsiera

Mende laurdena bete duen kirol hitzordua astebete barru ospatuko da Aginagatik Oriara, martxoaren 9an. Arratsaldeko 16:00etan hasita, bi proba jokatu dira errikoan. Saikolan abiatu eta Orion amaituko den probak 4 kilometroko luzera izango du; Mapilen hasi eta aipatu udalerri berean bukatuko den probak, 6.000 metrokoa.



Bi proba jokatu dira. Bat Saikolatik abiatuko da eta bestea Mapildik.

Miriam Arrillagak Emakume Master Cup Lehiaketako finalerdia jokatu du

Aurreko asteburuan Orozkon jokatu ziren partidaren ondoren, erabakita geratu dira Laboral Kutxa Emakume Master Cup lehiaketako Lehen Mailako finalerdiak. Miriam Arrillaga Beloki izan da sailkatuetako bat.

A taldeko bikote sailkatuak:
Leire Garai-Leire Etxaniz
Patri Espinar-Miriam Arrilaga

B taldeko bikote sailkatuak:
Iera Agirre-Olatz Arrizabalaga
Olatz-Maite Ruiz de Larramendi

Finalerdiak Erreterian
Martxoak 10 igandea
Leire Garai-Leire Etxaniz
Olatz-Maite Ruiz de Larramendi

Iera Agirre-Olatz Arrizabalaga
Patri Espinar-Miriam Arrilaga

Futbol partidak Haranen

Martxoak 2, larunbata
n 16:30 Erregionalak:
Usurbil F.T.-Urki CD

Eskubaloi partidak Oiardo kiroldegian

Martxoak 2, larunbata
■ 11:00 Kadete mutilak,
2. Fasea Euskadiko
Txapelketa:
-Usurbil K.E.
-Zaisa Bidasoa Irun

Joko Garbi txapelketa Zubietan

Otsailak 27, asteazkena
Zubietako 1 eta Zubietako 2 taldeen arteko finalerdiko partida, Zubietako frontoian. 19:00etatik aurrera, Zubietan.

Martxoak 17, igandea
Joko Garbi txapelketako finala.



Eskubitarra, Miriam Arrilaga eta Patri Espinar.

Josue
Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
IT-ak egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Iñaki
Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA •
ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com
600 024 825

ETXEBIZITZA

Salgai

Munalurran 3 logelako pisua salgai, igogailu eta fatxada berritua, 688618485

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

San Inazio kalean 100 metro-tako etxebizitza salgai. Sukaldea jantokiarekin, 25 metroko saloia, 2 komun, 3 logela haundi eta bi balkoi ditu. Eguzkitsua eta ia estrenatzeaz. 610 52 78 32

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70 m². 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia trastelekua. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berrituta. 688 779 465.

Etxebizitza eta garajea salgai Etxe-aldian (San Esteban kalea). Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela eta bainugela. Etxebizitzak 60m² eta garajeak 22m². 688866968

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berritu berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

Etxea erosi nahi dut Usurbilen. Kaxkotik gertu dagoen auzo batean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

Etxebizitza eta garajea salgai. Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela. Etxebizitzak 78 m² eta garajeak 50m². Tel. 676 453 176.

90 m² pisua salgai Txaramunto kalean. 3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela. 11 m²- terraza, 8 m² trastelekua eta bertan 33

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrek doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrek bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUAK ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

m2-ko garajea erosteko aukera. 606 877 856

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio berruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Pisua eta garajea salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, kafeakzioa. Dena berrituta. Fatxada ere bai. Garajea 40 m² eta itxia. Biak batera edo aparte. Tel. 695 705 905.

Gure Borda salgai: 5.600 m², borda, aterpea 943 42 96 82 / 637 293 471

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berrituta, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m². 637 22 88 60 .

Alokairuan

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan. Tel. 696 014 585

Alokairuko pisu baten bila gabilta. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsua eta garbiak. 688893668

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

Alokatzeko pisu merke baten bila gabilta, bikote bat gara, biak lanarekin, informea ditugu. 675595294

Duplex bat alokatzen da Txaramunto kalean. 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, bulego bat, terraza bat eta garajea. 625 702 807.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Negozio-lokal bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsu batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxita. Prezioa negoziatzeko. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekatziki kalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m²-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atearakin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m², ate elektrikoa eta itxia. 615744628.

34m²ko lokal komertzial bat alokatzen da Errekatziki 5ean. 695723192

2 garaje marra alokairuan edo salgai, Olarriondo 4an. Banaka edo biak batera. Tel. 663 031 803

120 metro² lokal bat salgai. Alpe-rrorburu 3an. 699 306 158

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Iruarkaitz enpresan lan egiteko igeltseroa bilatzen da. Esperientziaduna. Interesatuak bidali mezu bat iruarkaitz@hotmail.com helbidera.

Usurbilgo Alkartasuna Baserritarren Kooperatibak administratzaile baten beharra dauka, berehala lanean hasteko. Interesatua bazaude, deitu 943 361 114 telefono zenbakira, edo bidali zure CV alkartasuna@usurbil.com

Finantza eta aseguruetakoko kudeatzailea behar da Buruntzaldean. Baldintzak: Esperientzia

gabe aseguruetan, prestakuntza enpresaren kontura eta kotxea-rekin. Betebeharrak: Profesionaltasuna eta seriotasuna, lanbide-heziketa eta baldintza onekin. Tel. 699 760 873

Udarregi Ikastola partikularrak emateko prest dagoen jendearen zerrenda eguneratzen ari da. Partikularrak emateko prest egongo bazina, bidali mezu bat: gorpuztaldiak@udarregi.eus

Kamarero eta sukaldari laguntzailea behar dira Aratz erretegiari, info@restaurantearatz.com

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabilta. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. jm.fandino@catalanaocidente.com. 699 760 873.

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

29 urteko mutil bat naiz eta lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen esperientzia daukat. Orduka edo interno bezala. 631696636.

Lan bila nabilen neska bat naiz. Interna moduan lan egingo nuke. Tel. 602 069 147

Interna edo externa moduan lanean berehala hasteko prest. Neska jatorria, arduratsua eta langilea. 604166831.

Lan bila nabil. Garbiketan, pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna bezala, orduka. Berehala lanean hasiko nintzateke. 632 140 789.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Interna, externa edo orduka lan egiteko. Berehala lanean hasiko nintzake. 637 106 649.



Zorionak Enaitz!

Otsailaren 27an 3 urtetxo beteko dituzu eta guztiok desiatzen gaude zurekin batera ospatzeko. Segi orain arte bezain bixkor! Zure etxeokak



Zorionak Urko!

3 urte bete dituzu iada. Segi holako alaia eta zoriontsua izaten. Etxeko guztiak txoratzen gaude zurekin. Ondo pasa eta muxu handi bat!



Zorionak Laia!!

Martxoaren lehen egunean 4 urte beteko dituzu!! Beraz, egun zoragarria izan dezazula eta muxu erraldoi bat zuretzat!!

Heriotzak

Juan Iraola Segurola

80 urterekin hil zen otsailaren 19an Lasarte-Orian (Usurbilgoa zen)



Francisco Iturralde Mayoz

72 urterekin hil zen otsailaren 23an Bilbon (Aginagakoa zen)



OHARRA: 2019ko martxoaren 8an aterako dugu hurrengo astekaria. Oharrak, zorion-agurrak, bestelako deialdiak...

jakinarazteko azken eguna: martxoaren 4an astelehena, eguerdiko 11:00etan. Emailaz helbide honetara igorri: erredakzioa@noaua.eus

Lan bila dabilen mutil bat naiz, esperientzia ere erreferentziekin pertsona helduak zaintzen. Ospitaletan, paseatzeko eta pozik edukitzeko prest nago. Berehala lanean hasiko nintzake. Interno edo externo bezala. 603 595 656

Emakume arduratsua naiz, eta lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanak egiten. Interna moduan. 663 488 438

Garbiketa lanetan edo pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. Interna edo externa bezala. 617 064 054

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo lukeen neska bat naiz. Esperientziarekin. 663 443 736

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna edo externa bezala. Tel. 619 355 819

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna edo externa bezala. Tel. 633 101 867

Emakume euskaldun bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko. Astean 2 egunez, goizez edo arratsalde. Ur-tarrietik aurrera. 671 547 567

Neska arduratsua bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, umeak zaintzen edo garbiketan. 671277904

Mutil arduratsua bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen. Interno, externo edo gauak eritxean egiteko. Erreferentziak eta esperientziarekin. Tel. 603 595 656

Lan bila nabil. Helduak zaintzen. Interno, externo edo orduka. 631 996 636.

Lan bila nabil. Paperak egunean. Helduak zaintzen. Interna, externa edo orduka. 631 856 814.

Lan bila nabil. Interna bezala. Tel. 677 256 701.

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Etxeko lanak egiten, umeak edo nagusiak zaintzen. Orduka, interna edo externa bezala. Segituan lanean hasiko nintzake. 637 106 649.

Lan egin nahi dut. Interna edo externa bezala. Pertsona helduak zaintzen, supermerkatuan, tabernetan... Tel. 682 723 520

Pertsona helduak zainduko nituzke, asteburu, jai egunetan eta gauean, baita erietxean ere. 606 661 048 / 943 404015.

Jende heldua zaintzeko prest. Interna moduan edo orduka. Dokumentazio osoa dut. 682 72 35 20.

Neska euskalduna, Usurbilen umeak zaintzen egingo nuke lan udara honetan: ekaina, uztaila edota abuztuan (goiz, arratsalde edo orduka). 617263123.

Lan bila nabil. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen. Etxean, ospitalean, gauetan, externa bezala, orduka edo asteburutan. 671763558

Lan bila nabil interna edo externa bezala. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Urtebeteko esperientzia. Arduratsua, erreferentzia onekin. 666 295 450

Garbiketa egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko. Esperientzia duen neska, arduratsua. Berehala lanean hasiko nintzake.

637 106 649

Lan bila nabil, pertsona helduak zaintzeko. Ospitalean, etxean, gauetan. Garbiketa orokorrean ere bai. 671 763 558

Lan bila nabil etxeak garbitzen edo umeak zaintzen, ekaina eta uztaila, goizetan eta Usurbilen. 608201745.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna, externa edo orduka. 632 541 872

Emakume bat naiz, eta lan bila nabil. Interna, externa, orduka. Helduak edo umeak zaintzen. 676 188 411

Neska bat naiz, eta lan bila nabil. Orduka lan egingo nuke. Helduak edo umeak zaintzen. 619 355 819

Mutil gazte bat naiz, eta lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, hospitalean, baserrian. 632090146

Mutil gazte bat naiz, eta lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, hospitalean, baserrian. 632793747

Lan bila nabil. Umeak edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia eta erreferentziekin. 662 910 181

Emakume bat eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Geriatriako eta lehen laguntzako ezagutzak ditut. Esperientzia etxeko lanetan eta antolamenduan. Erreferentziak ditut. 612 495 429

Emakume bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko. Goizez edo arratsaldez. Esperientzia daukat. 690 336 444.

Lan bila nabil. Orduka eta arratsalde. 663 776 93

Lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, gauetan, asteburutan, externa bezala edo garbiketa lanetan. 671 763 558.

Interna moduan lan egin nahi dut adinekoak zaintzen. 25 urteko lan esperientzia dut. 633 73 64 26

Lan bila nabil, etxeak garbitzen, etxeko lanak egiten edo pertsona helduak zaintzen. Esperien-

tzia ere erreferentziekin. Tel. 632 576 258

Mutil arduratsua baserriko lane-tarako eskaintzen da. 661118892.

18 urteko neska euskaldun he-rritar esperientziaduna naiz. Aste osoan zehar arratsalden umeak zainduko nituzke. 688817429.

Lan bila nabil. Umeak zaintzen, garbiketa lanak egiten, orduka, interna bezala. 642 238 949

BESTELAKOAK

Oxelo markako patinete bat azaldu da Txaramunto kalean. Zurea bada deitu: 629 631 838.

Usurbilen bizi naiz eta Lehen Hezkuntzako oposaketak prestatzeko talde bat osatu nahiko nuke ahalik azkarren. Klase partikularak jasoko nituzke 2017. urtean atera zuen batekin, orduko prezioa adostuz. Ima. 688681557

Diamante, madarines eta isabelito japonen arrazako txoritxoak salgai. 659 185 107

4 gurgildun karro elektrikoak salgai. Scooter markakoa. Egokia elbarrituentzat. Tel. 664 609 596

3 metroko toldo marroia eta ariketak egiteko trifasikoa salgai. Prezioa adosteko. 676 39 89 33

Ingleseko klaseak ematen ditut 3-4 urteko haurretatik hasita. Klase dibertigarri eta alaiak gaztetxoentzat eta azterketen prestakuntza nerabeentzat. CPE tituluduna. Natali 635909606

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan 696014585

Ingeleseko eta frantseseko klaseak ematen ditut, etxeartara joanda. Jokin. Tel. 600 766 068

Udarregi Ikastolan klase partikularak emateko jende bila gabilta. Interesa baduzu pasa ikastolatik edo deitu! Telefono zenbakia: 943 36 12 16

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzailak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kirolegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneako Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	692 898 492	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaual Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 28 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Ostirala 01 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Larunbata 02 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Igandea 03 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Astelehena 04 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Asteartea 05 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Asteazkena 06 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Otsailak 28 - Martxoak 10

Osteguna 07 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Ostirala 08 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Larunbata 09 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Igandea 10 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
CASTILA-LARBURU
URBIETA KALEA, 7 HERNANI
943552941

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda martxo

01 ostirala

- **Inauteriak: Udarregi Ikastolako**en saioa
Ikus 15 or.
- **Inauteriak: Zubietako Eskolako**en saioa.
15:30ean Zubietan.
- **M8ko greba feminista** babesteko agerria.
19:00etan Mikel Laboa plazan.

02 larunbata

- **Inauteri Festa.** Ikus 15 or.

03 igandea

- **Haurrentzako zinea: "Gazte harrigarria, T.S. Spivet".** 17:00etan Sutegin.

Korrika Batzordearen bilera, ostiral honetan euskaltegian

Apirilaren 12an gure artera helduko den 21. Korrika girotzeko Usurbilen osatu den herritarren batzordeak hirugarren bilkurarako deia egin du ostiral honetan (martxoak 1) 17:30etan Etumeta AEK euskaltegian.

Bilera irekia, norbanako nahiz eragileentzat. Gogoan izan, Korrika laguntzeko bide ezberdinak dituzuela: arropa salgai duzue euskaltegian bertan, kilometroak erosteko aukera ere baduzue, edota Korrika Laguntzaile kanpainarekin bat ere egin dezakezue. Argibide gehiago euskal-



Ostiral honetan arratsaldeko 17:30ean batuko dira Etumeta AEK euskaltegian.

tegian bertan edo bideotatik: usurbil@
aek.eus / 607 609 379/ korrika.eus

Pentsio duinen aldeko elkarretaratzea

Hilero moduan, pentsio eta bizimodu duinen aldarria plazara aterako dute Usurbilgo Gure Pakea, Santueneko Gure Elkartea eta Aginagako Arrate jubilatuek. Herria mobilizatzen deitu dute ostegun honetan (otsailak 28), arratsaldeko 19:00etan Mikel Laboa plazan.

Astehenera, odol ematea

Bi hilean behin izan ohi dugun odol emateko hitzordua ate joka dugu berri. Usurbilgo Odol Emaileen Elkarrekin, datorren astehenerako (martxoak 4) finkatu du hurrengo deialdia, ohi bezala, anbulatortara joan beharko da, 18:00-20:30 artean.

Datozenak

Venezuelari buruzko hitzaldia

- Martxoak 5 asteartea.
- 19:00etan Sutegin.
- Hizlaria: Agustin Otxotorena.
- Antolatzailea: Tadamon elkarte eta Aintzane Iribar Aguiar.

Martxoaren 9an, Oriako Traineru Jaitsiera

Martxoaren 9an, arratsaldeko 16:00etan hasiko da arraun proba. Bi proba ezberdin iragarri dituzte. 4.000 metrokoak Saikolatik Oriarako zatia osatuko du. 6.000 metrokoak, Mapiletik Oriara bitartekoa.

'El Rey' filmaren proiektzioa, martxoaren 10ean Sutegin

Martxoaren 10ean igandea, "El Rey" filma eskainiko dute Sutegin. Alberto San Juan, Luis Bermejo eta Willy Toledo dira filmeko aktore nagusiak. 19:00etan hasiko da proiektzioa. Ordu bete lehenago, arratsaldeko 18:00etan, Willy Toledok hitzaldia eskainiko du Sutegiko erakusketa aretoan. Aurrez ere eros ahal izango dira sarrerak, 5 eurotan, Aitzagan eta Txirristan.

txirriStra
TABERNA

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

ZENDOIA
ENEA taberna

Kale Nagusia 35, Usurbil

BORDATXO
taberna

Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5



INAUTERIAK 2019 USURBIL Jolasak



Martxoak 1, ostirala

Orbeldi Usurbilgo dantza
taldearen emanaldia herrian zehar

19:00 Kiroldigitik aterata
kalejira.

20:00 Frontoian azken saioa:
Gipuzkoako makil-jotzaile dantzak.



Martxoak 2, larunbata INAUTERI FESTA

11:00 Inauterietan jolasak familia giroan frontoian.

11:30 Frontoitik abiatuta, BURRUNBAZALE txarangarekin
MOZORROTUEN kalejira herrikoia.

16:00 Karaoke Festa Gaztelekuan.
Mozorrotuta etorri!!!

17:30 Frontoitik BURRUNBAZALE
txarangarekin kalejira.

17:30 Bingoa Gaztelekuan.

19:30 Ttipika taldearen dantza gidatuen emanaldia eta
erromeria frontoian.

01:00 Larrian Gozo Usurbilgo taldea frontoian.



noa



URDAIRA



Sagardotegia

astelehenak itxita

Aginaga 943 37 26 91

OTSUA-ENEA SAGARDOTEGIA

943 55 68 94

Osinaga bailara, HERNANI



LARRE-GAIN DOLARE SAGARDOTEGIA

Urtarrilaren 18tik maiatzak 6ra
TXOTX GARAIA
Hernanitik autobus zerbitzu propioa
Astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserria **Ereñotzu - Hernani**
Tel: **943 55 58 46** Mugik: **616 287 867**

www.iruinsagardotegia.com



IRUIN sagardotegia

TXOTX denboraldi
berria 2019. primerako
sagardoekin
943.361.229



ELUTXETA

SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena izan ezik.



Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • **943 55 69 81**



Kalezar 39, USURBIL sidreria@sidrassaizar.com www.sidrassaizar.com

943 37 39 95

aginaga

SAGARDOTEGIA

Hotela **

URTE OSOAN
ETXEKO SAGARDOA
TXOTXETIKI!
ORAIN, BERTAN LOTAN
GELDITZEKO AUKERA!
ASTELEHENETAN ITXITA

943 36 67 10

Aginaga, USURBIL www.aginagasagardotegia.com



Txotxetik sagardoa
jarraitu usadioa!

%100 bertako sagarra

Tel: 943 365 031

Santuenlea